ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2008ko maiatzaren 5a > Astelehena > VI. urtea > 188. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Oñatin ez dago goi eta behe denboraldirik; bisitak urte osoan dira asko"

**Iñaki Igartua**
Oñatiko Turismo Bulegokoa > 9

**G2a** El Doghouse: punk musikaren indarra > 23

**ESKORIATZA**
PSEk, EAJk eta EAk aurkeztutako 'mozio etikoa' atzera bota zuten > 13

**KIROLA**
Bergara Hiriko finalerdiak bihar, Udal Pilotalekuan > 20

**KULTURA**
'Txiliku' Aranguren eta Bea Zabalondori elkarrizketa > 24




**PLAZA BETETA** Arrasateko plaza nagusia jendez lepo bete zen manifestazioaren amaieran eta Xabier Zubizarretak eta Arantza Urkaregik egin zuten berba.

JOSETXO ARANZABAL

**ELKARTASUNA** > MANIFESTAZIOA ARRASATEN

# Milaka lagunek eskatu du alkatea askatzeko

**AGERRALDIA** Manifestazio jendetsua zapatuan Ino Galparsorori elkartasuna adierazteko

**MOBILIZAZIOAK** Eguenerako Euskal Herrian mobilizazio eguna deitu dute eta greba Arrasaten > 2-3

**AZPIEGURAK** > AHT

## Desjabetzen aurka Aramaion

Manifestazioa deitu dute gaur arratsalderako > 04

**JAIAK** > ESKORIATZA

## Giro ederra izan zen Atxorrotzen

Jende ugari batu zen atzo bertako eguna ospatzeko > 09

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

**SASKIBALOIA** > BI JARDUNALDIREN FALTAN

## EBA ligan lehiatuko da MU hurrengo denboraldian

Urdanetari irabazi ostean, MUk EBA ligarako igoera lortu zuen atzo, Iturripen. Iñaki Merinoren mutilek 96-80 irabazi zieten bizkaitarrei eta liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan igoera txartela eskuratu dute. Denboraldi borobila egin dute arrasatearrek: orain arte jokatutako 26 partiduetatik bakarra galdu dute eta merezimendu osoz EBA ligan jokatu ahal izateko saria lortu dute.

Azken denboralditan igoerak ihes egin badie arrasatearrei, aurtengoan ez dute hutsik egin eta sendo ibili dira urte osoan zehar. EBA ligan lehiatzean, erronka handiari egingo dio aurre MUk hurrengo denboraldian. > 16






**IBILBIDE LUZEA** Herriko plazan abiatu eta leku berera bueltatu artean manifestariak ordubete pasa ibili ziren Arrasateko kaleetan barrena; irudian, manifestazio burua Arrasate pasealekuan. JOSETXO ARANZABAL

**ELKARTASUNA** > MANIFESTAZIOA ARRASATEN

# Milaka lagunek eskatu du Ino Galparsororen askatasuna

**ESPETXEAN** Eguaztenean Soto del Realen kartzelaratu zuten Arrasateko alkatea, besteak beste "talde terroristarekin kolaboratzea" leporatuta

**MOBILIZAZIOAK** Prentsaurrekoa eta manifestazioa eguenean egin ostean, bilkura jendetsua izan zen zapatuan; greba deitu dute eguen honetarako

**ERABAKI POLITIKOA** Judiziala barik PSOEk EAJren laguntzaz hartutako erabaki politikoa izan dela azpimarratu dute hainbat ordezkari politikok

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Eguaztenetik Soto del Realeko espetxean dago Ino Galparsoro Arrasateko alkatea Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzonek baldintza barik eta behin behinekoz kartzelaratzeko agindua eman ostean. Leporatu diote "talde terroristarekin kolaboratzea" eta "ANVren jardueren etetea hautsi izana". Gainera, autoan ez da baztertzen "talde terroristako kide" izatea.

**JENDETZA ETA OIHUAK KALEAN**

Ino Galparsororen atxiloketa salatzeko hainbat ekintza izan dira egunotan Arrasaten. Eguenean Ezker Abertzaleko hainbat buruzagik prentsaurrekoa egin zuten herriko plazan bizi duguna "salbuespen egoera" dela azalduz eta PSOE eta EAJ eginez erantzule zuzen. Ondoren egindako manifestazioan ehunka lagunek hartu zuten parte. Baina dudarik gabe, ekintzarik esanguratsuena zapatuko manifestazioa izan zen. Milaka lagunek adierazi zioten elkartasuna Arrasateko alkateari herriko kaleetan. Horren erakusle, manifestazio burua Portaloira iritsi zenean azken manifestariak San Andres auzoan zirela oraindik.

*Salbuespen egoerari stop. Euskal Herriak autodeterminazioa* lelodun pankartaren atzean Iñaki Olalde, Miren Legorburu, Juanjo Olaizola, Arantza Urkaregi, Oihana Aranburu, Iñaki Errazkin, Idoia Ibero eta Xabier Zubizarreta. Jende artean ere ezker abertzaleko aurpegi ezagunak: Itziar Aizpurua, Jose Luis Elkoro, Nekane Erauskin, Juan Mari Olano eta ibarreko ANVko alkateak eta zinegotziak besteak beste.

Ibilbidean barrena "Ino askatu", "PNV español", "Herriak ez du barkatuko" zein presoen aldeko oihuak eta irrintziak entzun ziren ozen.

**"INO DA ORAINDIK GURE ALKATE"**

Ibilbidea amaitu eta plazan elkartu zen jendetzaren aurrean Xabier Zubizarretak eta Arantxa Urkaregik hartu zuten hitza, Inori elkartasun mezua helaraziz eta PSOE eta PNVren estrategia politikoaren baitan kokatuz atxiloketa.

Xabier Zubizarretak herritarren elkartasuna eskertu ostean, esan zuen: "Ez daukagu kontatzen ibili beharrik Inok zenbat ordu, elkarrizketa, bilera, ahalegin eta



* KONTUZ LUR BUSTIA
Gizarte elebiduna lortzeko egiten dugu lan.
Zure hizkuntza eskubideak zaintzeko egiten dugu lan **elebiden**. Haiek urratu zaizkizula uste baldin baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin, eta beharrezkoa den guztia egingo dugu arazoa konpontzeko.
ELEBIDE Hizkuntza Eskubideak bermatzeko zerbitzua
Servicio para la garantía de Derechos Lingüísticos
012 www.euskara.euskadi.net/elebide
EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE CULTURA Viceconsejería de Política Lingüística

buruhauste izan duen eta zenbat esker on eta errekonozimendu jaso duen arrasatearren alde eta arrasatearrengandik". Gaineratu zuen, "kartzelan sartu arren gure alkate izaten jarraituko du. Ezker abertzaleko zinegotziak zazpi izango dira, ez sei, baten batek esan duen moduan. Inok bere ibilbide eta lanarengatik herritarren babesa jaso zuen eta orain are eta gehiago. Ino arrasatearron ordezkari instituzionala da. Horregatik eskatzen dugu berehalako bere askatasuna".

Arantza Urkaregik hartu zuen hitza gero eta esan zuen "Ino kartzelara eraman duen erabakia ez da judiziala, nahiz eta horrela mozorrotu. Erabaki politikoa da, PSOEk hartutakoa. Negoziazio prozesua apurtu zenetik PSOEk ezkerreko proiektu independentista desagerrarazi nahi du". Bere esanetan, "ezker abertzalearen kontrako eraso honetan PSOE ez dago bakarrik, PNVrengan oso lagun leiala aurkitu du. Elkarrekin daude ezker abertzalea kolpatzeko eta isilarazteko estrategian, bien arteko akordioa gauzatu ahal izateko ezker abertzale ahula behar dutelako".

Ekitaldia *Internazionala* eta *Eusko gudariak* abestuz amaitu zuten. Ostean, zabor edukiontziak eta kutxazain automatiko bat erre zituzten ezezagunek eta ertzainak eta suhiltzaileak azaldu ziren.

**UDAL ORDEZKARIEN IRITZIAK**

Arrasateko udaletxeko zinegotziei azken gertakarion aurrean euren iritzia eskatu diegu.

PPko Itziar Lamarainen esanetan, "erabaki judizialak beti onartzen ditut, baita oraingoan ere. Egoera ez da erraza baina aurrera egin beharko dugu".

PSOEko Paco Garciak esan du ez dutela gai judizialen gaineko baloraziorik egiten: "Legea errespetatzen dugula baino ez dut esango. Aurrerantzean Udalean gertatuko dena ez dago gure esku, indar politiko guztien esku baizik".

Gertakarien aurrean balorazio negatiboa egin eta Inoren berehalako askatasuna eskatu du EBko Ander Rodriguezek: "Bai ETA eta baita Madrilgo judikaturako, politikako eta komunikabideetako sektorerik mendiz handikoenak gu akzio-erreakzio espiral batean sartzen saiatu dira; eta gure esku dago espirala apurtzea". Bere esanetan, "Udalaren egoera ez da batere ona eta zaila da horrela Udala zuhurtasunez kudeatzea. Ez da erraza izango Udalean normaltasuna berreskuratzea".

EAko Pello Urizarrendako gertatua "zentzugabekeria" da. Epaiketaren zentzu politikoa azpimarratu du: "AVT prest zegoen Ino fidantzarekin aske uzteko eta Gobernuaren ordezkari den fiskaltzak, fidantzarik gabe zuzenean espetxeratzeko agindua eman du". Bere esanetan, "legea beteko da,baina askotan legeak ez du zerikusirik justiziarekin; kasu honetan injustizia nabarmena da".

Aralarrek EB-Zutik eta EArekin batera kaleratutako idatzi batean erabakia neurrigabetzat jo eta alkatearen "berehalako askatasuna" eskatu du.

EAJko udal taldeak Garzonen ekintza salatu eta alkatearen berehalako askatasuna eskatu du. "Salaketa Barne Ministerio beraren bultzada politikoan eta Garzonen laguntzan oinarritzen dugu. Honen sorburua Alderdien Legean dago eta hortik datozen egintza eta zentzugabekeria-katearen beste urrats bat da".

Yoli Perez de Arenaza zinegotziak Udalean herriaren alde lanean jarraitzeko asmoa azaldu du: "Udalean Ino falta den arren bere lana betetzen saiatuko gara berak egiten zuen bezain ondo. Udalera sartu ginenean konpromisoa hartu genuen botoa eman zigutenekin eta gainontzeko herritarrekin. Honek asko mindu gaitu, negar egin dugu, baina negar hutsean geratuko da, indarra badaukagulako oraindik aurrera jarraitzeko".




**HITZALDIA** Xabier Zubizarretak eta Arantza Urkaregik egin zuten berba. J.A.




JOSETXO ARANZABAL

## Mobilizazio eguna eguenerako

Maiatzaren 8rako, eguenerako, Ino Galparsororen espetxeratzea salatzeko eta salbuespen egoeraren kontra egiteko, mobilizazio eguna antolatu du ezker abertzaleak Euskal Herriko txoko guztietan.

Arrasaten, herri batzarra egingo dute gaur, astelehena, 19:00etan Seber Altube plazan. Bilkura horretan emango dute, besteak beste, eguenean Arrasaten greba orokora egiteko deialdiaren berri.



**Jose Luis Elkoro**
Bergarako alkate ohia

"Lapurtu egin digute alkatetza, herriaren ordezkaritza, herriak emandako indarra. Hori alderdi guztien ardura da. Hortaz, gainontzeko alderdiei eskatzen diet indar guztia erabiltzeko kendutako ordezkaritza berreskuratzeko".



**Xanti Kiroga**
Uharteko zinegotzia

"Herritarrek hautatutako alkatea bestela ezin eta indarrez kendu dute. Elkartasuna ikusita pentsatu behar lukete benetan asmatzen ari diren. PNVri galdetu nahi diot euren printzipio etikoak betetzen ari diren ala herritarrak engainatzen".



**Xabier Mikel Rekondo**
Usurbilgo alkatea

"Herritarrok aukeratuak gara, kaletarrak, herriaren interesak defendatzen eta herrigintzan aritzeagatik kartzelaratu gaituzte. Inori elkartasuna, aldarri bihurtu den “maite zaitugu” hitzekin, entzungo dituen esperantzaz"



**Pedro Iturbe**
Antzuolako alkatea

"Egoera gogor honetan besarkada bat helarazi nahi diot Inori, bere bila joan direlako zuzenean. Ez da erraza hausnarketa egitea. Euren esku dago dena eta gu Euskal Herrian bizi eta Madrildik etor daitekeenaren esperoan gaude".



**Agurne Barruso**
Bergarako alkatea

"Inori elkartasuna bidali nahi diogu. Kosta egiten zaigu sinestea egin dutena eta gainontzeko hautetsiondako zabaldu duten bidea. Paretik kendu nahi gaituzte euren iruzurra egiteko eta bide batetik lortu ezean bestetik egingo dute".

OMU KERAMIKAK
zeramika • bainuak
eraikuntzarako materiala
BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



**AHT** > PROTESTAK ARAMAION

# AHT: Aramaioko nahitaezko desjabetzen kontra

AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako manifestazioa gaur Aramaion; bihar, kontzentrazioa egingo dute

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

AHT Gelditu! Elkarlanak mobilizazioak deitu ditu gaurko eta bihar, martitzenerako, Aramaion. Egubakoitzean Kultur Aten emandako prentsaurrekoan, Espainiako Sustapen Ministerioak AHT eraikitzeko lanak egin ahal izateko agindutako nahitaezko desjabetzak salatu zituzten abiadura handiko trenaren aurkako plataformako kide diren Maier Usobiagak eta Hilario Manzanedok.

**KONTZENTRAZIOA BIHAR**

Esan bezala, gaur, astelehena, manifestazioa deitu dute 20:00etan Aramaion. Lurren nahitaezko desjabetzak salatzeko deitutako ekitaldietan parte hartzeko deia zabaldu zuten antolatzaileek: "Salaketa larria egin nahi dugu Sustapen Ministerioak egin nahi dituen lurren okupazioak inposatuak direlako, herritarron borondateari muzin egiten diotelako eta eztabaida sakon bat egin gabe makroproiektu honi hasiera eman nahi diotelako". Gaurko manifestazioaren ostean, batzarra egingo dute.

Bestalde, bihar, martitzena, kontzentrazioa egingo dute Aramaioko udaletxearen parean, 10:00etatik aurrera. "Herri ekimenaren bidez Aramaioko bizilagunek proiektu honen aurka duten jarrera indartu eta maiatzaren 6, 7, 8 eta 13rako deitutako lurren desjabetzak salatu nahi ditugu", adierazi zuten komunikabideen aurrean.

Era berean, Asier Agirre Aramaioko alkatea ere izan zuten gogoan: "Ustezko hiru leporatu nahi dizkiote herritarrek proposaturiko AHTren gaineko inkesta bat egiteagatik eta aurreko astean deklaratu behar izan zuen fiskalaren aurrean". AHT egiteko 1.406 metroko luzera eta 70 m-ko altuera izango lituzkeen biadukto erraldoi bat egin nahi dutela salatu zuten egubakoitzean. Barajuen, Azkoaga, Zabola edo Suña izango lirateke auzorik kaltetuenak.




**ARAMAIO** AHTren proiektua dela eta, Aramaioko nahitaezko desjabetzak salatu zituzten egubakoitzean, Arrasaten. E.M.

**GERTAERAK** > EGUENEAN, IRUKURUTZETAN

# Mendizale bat hilda Elosuan, bihotzekoak jota

**E.M.** > BERGARA

M.A.A. Debako 52 urteko mendizale bat hil zen eguen eguerdian Bergaran. Jaurlaritzako Barne sailak emandako informazioaren arabera, bihotzekoak jota hil zen, arratsaldeko lehen orduan, Elosuan, Irukurutzeta inguruan hain zuzen. SOS Deiaken partikular baten abisua jaso zuten 13:30ak baino lehen, laguntza eskatuz, ustez gizon bati bihotzekoa eman ziolako. Haraino heltzea zaila zutenez, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren helikoptero bana bidali zituzten Irukurutzeta ingurura.

Hala ere, behin gizona lokalizatu ondoren, sorospen zerbitzuek ezin izan zuten erreanimatu. Ondorioz, Elosura eraman zuten gorpua helikopteroan eta handik autoan Donostiako Auzitegiko Patologia zerbitzura. Hildakoa, esan bezala, Deban bizi zen eta 52 urte zituen.



**HELIKOPTEROA** Argazkian, ertzainak erreskate lanetan. ARTEAGA

> LANA

## MUk eta Mondragon Taldeak hitzarmena sinatu dute

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Taldeak hitzarmena sinatu dute, MUko ikasleek Mondragon Taldeak atzerrian dituen lantegietan praktikak eta karrera amaierako proiektuak egiteko aukera izan dezaten.

Datozen hiru urteotarako sinatu dute hitzarmena, ikasleek lanarekin kontaktu zuzena izateko asmoz. Mondragon Taldeak Brasilen, Errusian, AEBn, Mexikon, Txinan edo Indian ditu ordezkaritzak.



**HEZKUNTZA** > FORMAKUNTZA ZIKLOA

# Eskaintza partzialak ikasteko aukera

Datorren ikasturtetik aurrera, aukera berri bat egongo da Bergarako Miguel Altuna institutuan



Besteak beste, proiektu teknikoen garapena eskainiko du Miguel Altuna Institutuak hurrengo ikasturtean. MIGUEL ALTUNA

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bergarako Miguel Altuna institutuak Eskaintza Partziala deritzon eskaintza, erdi mailako –Mekanizazioa, Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak– eta goi mailako heziketak –Proiektu Mekanikoen Garapena, Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak eta Administrazio eta Finantzak– ikasteko aukera emango du 2008-2009 ikasturtetik aurrera. Eskaintza hau, 21 urte izan edo 2 urteko lan esperientzia dutenei zuzendurik dago.

Ikasketa hauek egiteko, sarrera baldintzak ere bete behar dira. Horrela, erdi mailako zikloa burutzeko, DBHko titulua edo baliokidea izatea eskatzen da, eta goi mailako zikloa burutzeko, berriz, batxilergoa edo baliokidea edukitzea.

**ESKAINTZAREN EZAUGARRIAK**

Heziketa mota hauen ezaugarrietako bat, ikasleen beharretara egokitutako eskaintza izatea da. Behar hauek kontutan hartuz, astelehenetik ostegunera arratsalde-gauez, egunean 3 edo 4 ordu ikasiz, Lanbide Heziketako titulu ofizial bat eskuratuko lukete partaideek. Matrikula egiteko lehenbailehen Miguel Altunara jo beharko dute interesatuek. Informazio gehiago nahi duenak ikastetxeko idazkaritzara jo dezake, edo nahi izanez gero, ondorengo telefono hauetara deitu: 943 76 38 40 edo 943 76 24 91. Jabier Arteaga institutuko formazio arduradunak zera adierazi digu: "Bizi garen gizarte honek zeintzuk behar dituen kontutan hartuta, oso interesgarria da datorren ikasturterako proposatzen dugun aukera berri hau. Gainera, titulu ofiziala lortzeko modua orain artekoarekiko ezberdina da; ez dago adin mugarik, edozein pertsonari zuzendutako eskaintza da, eta ordutegia ere, behar ezberdinetara moldatuko dugu".

## Zilarrezko Odol Tanta saria Elgetako Udalari



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak emandako saria jaso du Elgetako Udalak. Urtean mila biztanleko 50 odol ateraldi baino gehiago egiten diren udalerriak saritu zituzten, apirilaren 28an, Batzar Nagusietako eraikin berrian izandako ekitaldian. Oroigarria Oxel Erostarbe alkateak jaso zuen eta lagun izan zituen Elgetako Odol Emaileen Elkartekoak.

> JARDUNALDIAK

### Adimen emozionalari buruzko zikloa Oñatin datorren astetik, Txantxiku ikastolaren eskutik

Txantxiku Ikastolako Guarsoen Kontseiluak adimen emozionalari buruzko formazio ziklo bat antolatu du, Oñatiko Udalaren laguntzaz. Lehen saioa datorren martitzenean, hilaren 13an, izango da Santa Ana antzokian, 18:30ean. Bi orduko saioan, gaiari buruzko kontzeptu orokorrak emango dituzte.

> BERGARA

### Aranzadiko DBHko 4. mailako ikasleendako Kosmodisea lehiaketako hirugarren saria

Aranzadi Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleek hirugarren saria eskuratu dute Diputazioak bultzatutako Kosmodisea lehiaketan. Aranzadiko ikasleek nekazal giroko eta hiri giroko bizitzaren arteko desberdintasunak jorratu dituzte, besteak beste, ahozko grabazioak, irudien sekuentziak eta bideoa erabiliz. 35 ikastetxe lehiatu dira eta Aranzadiko ikasleek MP4 bana eskuratu dute sari gisa.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Ibarreko turismoaren gune nagusia da Oñati. Bertako bulegotik hori sustatu eta zerbitzurik onena eta zabalena ematen saiatzen dira. Krisia ez da nabari turista kopuruan, diotenez, iazko zifrei eutsi diete-eta momentuz. Bartzelona eta Madrildik datoz bisitarik gehienak. Iaz 20.000 bisitari izan ziren Oñatin eta aurten kopurua gainditzea espero dute.

**Iñaki Igartua** > Oñatiko turismo bulegoko teknikari arduraduna

# "Edozein zailtasun dutenendako egokitu gura dugu Oñatiko eskaintza"

**JON BEREZIBAR** > OÑATI

**Ia 20 urte atzera egin beharra dago Oñatiko turismo bulegoaren hasieretara jotzeko. Garai hartan udalerriaren ondare historiko monumentala bultzatzeko ideiarekin hasi ziren. Gaur egun ekimenaren arrakastaz berba egin daiteke eta "une benetan gozoa" dela oraingoa dio bulegoko teknikari arduradunak.**


Iñaki Igartua, Unibertsitateko klaustroan, zapatuan ateratako argazkian.
J. B.

**Oñatik duen ondareaz zalantzarik ez da egiten baina beti eman zaio daukan balorea?**

Betidanik ezagutu dira Oñatiko monumentuak baina ez zitzaien behar zuten arreta ematen. Ez zegoen behar bezala ustiatut, jendeari erakusteko moduan. Ez bakarrik ondare historikotik, arkitektonikotik ere ez. Helburua, hasieran, izan zen Oñati hobeto ezagutzera ematea eta, aldi berean, herria kanpora ere gehiago zabaltzea.

**Urteak igaro dira. Ze unetan aurkitzen zarete egun?**

Oso fase polit batean. Orain dela urte bi proiketu berri bati ekin genion, Kalitatearen Q-a eskuratu genuen, hemen daukagun lan metodoa saritzen duena. Baliabide turistiko guztien promozio handia egiten saiatzen gara. Informazio guztia lau hizkuntzatan ematen dugu eta Fitur eta Bartzelonako azoken modukoetara joatea ere oso garrantzitsua da guretzat. Hor egiten dugu promozioa oso garrantzitsua da ze gero hori hemen ikusi egiten da. Oñatin ez dago goi eta behe denboraldirik. Urteko hile guztietan dauzkagu bisitak, taldeak eta aurrez egindako erreserbak. Urritik martxora *Imsersoaren denboraldia* daukagu, Imsersoko eta eskoletako bisitekin. Bisita asko dauzkagu eskolen arteko elkartrukeetan kanpokoak Oñati ikustera ekartzen dituztenak.

**Oñati beraz kultura gune moduan identifikatzen da.**

Baiezkoan nago. XV. mendean euskal berpizkundearen jaiolekua izan zen eta uste dut, poliki-poliki, aintzinako leku hori berreskuratzen gabiltzala. Hortan datza gure lanak, bulegoak eta Oñatiko Garapen Agentziak elkarrekin egiten duguna. Emaitza onak jasotzen gabiltzala ikusten da; bisitari kopurua horren erakusle da.

**Bisitariak, hortaz, ezagutzen dute Oñatin zer aurkituko duten.**

Kulturadun turista izan ohi da hona datorrena eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Gure arrakastaren zati bat bisita gidatuak egiten ditugun moduari zor diogu eta horietan transmititu gura dugunarekin Ez gara mugatzen historia kontatzera, Oñatiren izaera eta jendea nolakoa den transmititzen dugu. Gainera harrigarria da jendeak zelako ondo prestatzen duen bisitaldia. Urrian hasten zaizkigu hurrengo udarako pentsatzen dabiltzan bisitarako informazioa eskatzen. Hona datorren turista berezia da, aurrez ondo prestatuta etorri ohi da, hain zuzen.

**Herriaz gain, Arantzazu erreferente da eta, orain, Arrikrutz ere eskaintzaren barruan dago. Ze turismo mota erakartzen du horrek?**

Turismo mota guztiak sustatzen eta garatzen saiatzen gara. Taldeendako *pack* bat atera dugu orain. Proposamen horretan Oñatiko, Arrikrutzeko eta Arantzazuko bisita gidatuak sartzen dira eta, horrekin batera, herriko zenbait jatetxetan prezio berezia egiten diete.

URTE OSOAN

**"Dagoeneko Oñatin ez dago goi eta behe denboraldirik, bisitak urte osoan dira asko"**

BISITA GIDATUAK

**"Ez gara mugatzen historia kontatzera, Oñatiko izaera ere transmititzen dugu"**

OÑATI, IRISGARRI

**"Orain gure helburua Oñati irisgarria egitea da, edozein zailtasun mota izanda ere Oñati ezagutzeko aukera emateko"**

**Turismo eta zerbitzuen alorra beraz koordinatuta doaz?**

Bistariei ikusi dezaketenaz gain, non jan edo ostatu hartu ere azaltzen diegu. Orri bat ematen diegu menuen prezioekin, adibidez. Turismoa pizgarri ekonomikoa izatea da guk bilatzen duguna, komertzio zein ostalaritzari lagun diezaiokeena. Ez dira hor amaitzen gure asmoak. Plan bat gertatzen gabiltza gaur egun Oñatin turismo irisgarria delakoa sustatzeko. Mota guztietako zailtasunak dauzkatenendako egokitu gura dugu Oñatiko eskaintza turistikoa, Oñati guztientzat izan dadin.

**Ondo garatuta dago ostalaritzaren alorra gurean?**

Ahal duguna egiten saiatzen gara ekimenen bitartez. Aitatutako *pack* hori litzateke bat, eskaintza gastronomikoa bultzatuz edo hotelenea.

**Aipatu duzu oso une gozoan zaudetela bulegoan. Aurrerantzean zeintzuk lirateke asmoak?**

Oñati guztiz irisgarri egin gura dugu, mundu guztiak etortzeko aukera izan dezan. Errefeerente bilakatzen saiatuko gara. Hiru fasetan, poliki-poliki egingo dugu, plus hori lortzeko. Turismo aktiboa ere sustatu gura dugu, bizikleta bueltekin Arantzazu inguruetatik. Azpiegituren kontua dago hor. Pozik gaude dagoenarekin baina hobetu liteke. Garraioen kalitatea eta loturak hobetu behar dira. Guk hala ere, ahal duguna egiten dugu. Hotel gehiago egotea ere interesgarria litzateke. Gure buruekin exigenteak gara eta hobetu gura dugu eskaintza. Gauza on asko dauzkagu baina hobetu beharrekoak ere asko dira. Gure lantaldetik nabarmenduko nukeena da daukagun lan egiteko gogoa.

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE

**> Mozart eta Bruckner entzutera joango dira**

W.A. Mozarten *Fa handian pianorako 19. kontzertua* eta A. Brucknerren *Mi txikian 7. sinfonia* entzutera joango dira Euskalduna jauregira maiatzaren 23an Iturripe elkartekoak, eta autobusa antolatu dute. Izena emateko aukera dago 620 55 99 79 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Emakumeendako mendi ibilaldia antolatu dute**

Araotz-Andarto-Degurixa mendi ibilaldia antolatu dute maiatzaren 17rako. Ibilaldia emakumeei zuzenduta dago. Izena emateko aukera dago Emakume Txokoan (943 79 41 39 *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net).*

ARRASATE

**> Erretiratuaren Eguna ospatuko dute**

Abaroa elkarteak Erretiratuaren Eguna ospatuko du maiatzarne 31n. SUDCek antolatutako bazkarirako eta zozketarako txartelak jaso daitezke, bazkide karnet eguneratua aurkeztuta, gaur hasi eta maiatzaren 22ra bitartean, 18:00etatik 19:30era, astelehen eta eguenetan, eta 18:00etatik 19:00etara, egubakoitzetan. Bestalde, Donostiara irteera egingo du Abaroak maiatzaren 27an; izenematea 21ean egin behar da, 10:30tik aurrera.

ESKORIATZA

**> Umeen danborradarako izena eman daiteke**

San Pedroetako umeen danborradan parte hartu gura dutenek izena emateko aukera dute, egubakoitza arte, kultura etxean edo Luis Ezeiza eta Jose Arana ikastetxeetan.

ESKORIATZA

**> Atxorrotzen gaineko bi hitzaldi, egunotan**

Bihar, *Castillo de Atxorrotz. Historia y posible recuperación* delako hitzaldia egingo du Iñaki Sagredok, eta eguenean, *Espacio de frontera: las fortificaciones alto medievales de Gipuzkoa* delakoa egingo du Iñaki Padillak. Ibarraundin izango dira, 19:00etan.

ARRASATE

**> Institutuan aurre matrikulazioa egiteko aukera**

Zabalik dago Arrasate Institutuan aurre matrikulazioa egiteko epea, eta batzarra eta ate irekien jardunaldia antolatu dituzte biharko, 18:00etan, goiko erainkinean. Aurre matrikulazioa idazkaritzan egin behar da (09:00-17:00).

ESKORIATZA

**> Palestinaren gaineko hitzaldi eta diaporama**

*Palestina, 60 urte erresistentzian* delako hitzaldia eta diaporama egingo du Gorka Quevedo kazetari eta Komite Internazionalistetako kideak gaur, astelehena, Ibarraundi museoan, 19:30ean.

ESKORIATZA

**> Norbere burua defendatzen ikasteko parada**

Emakumeei zuzendutako norbere burua defendatzen ikasteko jardunaldietarako izenemate epea zabalik dago honako telefono zenbakian: 627 44 21 42. Ikastaroa maiatzaren 10ean eta 11n izango da, 10:00etatik 13:00etara.

ARRASATE

**> Bularreko minbizia goiz antzematearen gaineko hitzaldia egingo du mediku batek**

Bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen Katxalin elkarteak antolatuta, bularreko minbizia goiz antzematearen gaineaan hitz egingo du Donostiako Onkologikoko Lourdes Aritziturri medikuak. Azterketez, tratamenduaz, prebentzioaz… jardungo du eguenean, Amaia antzokian, 17:30ean.

DEBAGOIENA

**> Herri Urratsera joateko autobusa dago**

Debagune euskara elkarteen bilguneak maiatzaren 11n Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du. Txartela 12 eurotan dago salgai –10ean, ikasle eta langabeendako–, Loramendin, AEDn, Jardunen eta Oñatiko Txantxiku ikastolan.

BERGARA

**> Ume sahararrak hartu nahi dituztenendako**

*Oporrak bakean* programaren barruan Saharako umeak hartu nahi dituzten familiendako hitzaldi informatiboa egongo da bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE

**> Gazte ekimenaren gaineko hitzaldia**

Etzi, eguaztena, gaztetxean, 19:00etan, euskararen eta gazte ekimenaren gainean berba egingo dute Lander Juaristik, Arkaitz Biainek eta Mikel Arregik.

ARRASATE

**> Guraso euskaldun zahar eta berriendako hitzaldia**

Zahar Berrik, *Guraso lagun* ekimenaren barruan, eta *Iruditik hitzera* hitzaldi-bilgunea antolatu du, guraso euskaldun zahar eta berriendako. Yolanda Arrietak ipuin eta olerkien atzean zer dagoen aztertuko du etzi, Kultur Aten, 18:00etan.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Usoa Agirre** > Goienako Telematika saileko arduraduna

# Dirua nork, eskulturak hari

Jai izan ditugun egun hauetan gauza asko egiteko denbora eman digu. Hemengo txokoak ezagutzeko, besteak beste. Oñatin izan ginen bisita gidatuan eguenean, unibertsitatea eta eliza bisitatzen. Oñatiarrei ez da esan beharrik egongo, baina merezi du eraikin horietatik osteratxo bat egitea.

Unibertsitatea zoragarria iruditu zitzaidan. Lehen ere egonda nengoen, baina sekula oso ondo fijatu barik. Aurrealdea, barruko gelak, klaustroa,… Ikasleek ikasi behar zutenari zuzendutako irudiak daude. Eta hor daude Penelope eta Ulisesen ondoan, Espainiako errege izan ziren Karlos eta Fernando. Zer egiten dute errege horiek pertsonaia mitologikoen ondoan? Ez dute berez loturarik, baina unibertsitatea eraiki eta mantentzeko dirua nonbaitetik bildu behar eta horien bien eta beraien emazteen aurpegiak daude ikusgai.

> "Penelope eta Ulisesen ondoan Espainiako errege Karlos eta Fernando"

Ez dira, beraz, gauzak asko aldatu XVI. mendetik hona. Orain ere, dirua eta boterea nork duen, hari egiten dizkio mesedeak diru hori nahi duenak; bazkari batera gonbidatuz, eskultura bat jarriz edo mozioak hitzartuz.

**> Harrituta ikusi nituen lehengoan jostailuen iragarkiak telebistan. Hainbeste iragarki Gabonetan bakarrik ematen dituztela uste nuen. Baina, noski, jaunartzeak ere hasi dira-eta.**

**> Atzo izan genuen jaunartze bat. Mundu guztia elizara joaten zen garai hartan zerbait berezia izango zen jaunartzea, baina gaur egun opariak jasotzeko aitzakia bat besterik ez da gehienentzat.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Iker Urtzelai** > Arrasate

# "Portugalen marokoarrek modukoak dira: patxadatsuak eta gidatzen, eroak"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Egun Lisboan bizi da Iker Urtzelai. Mekanizatuetako modulu bat egin ostean praktikak egitera joan zen Portugalera. Asteburua Algarven izan ondoren –ez, hain justu, helburu akademikoak direla medio–gustura erantzun zien gure galderei.**

**Noiz joan zinen Portugalera?**

Ez daramat denbora asko etxetik kanpo. Pasa den martxoaren 8an etorri nintzen Lisboara eta maiatza bukaeran bueltatzeko asmoa daukat. Bi hilabete eskas bakarrik daramatzat hemen, eta segituan pasa zait denbora.

**Oso denbora gutxirako joan zarela esan daiteke. Zer galdu zaizu ba, Lisboan?**

Praktikak egitera etorri naiz Lisboara. Bergarako Miguel Altuna institutuan mekanizatu modulu bat egin dut. Hala, Portugalen praktikak egiteko aukera aurkeztu zitzaidan. Orduan, nire buruari "eta zergatik ez?" galdetu, eta hemen nago orain, beste bost lagunekin batera bizitzen. Bost horietatik lau bergararrak dira eta bat aretxabaletarra.

**Nongo bizimodua duzu nahiago, Lisboan daramazuna edo Arrasatekoa?**

Hemen ez naiz gaizki bizi, daramadan bizimodua ez da txarra. Baina zalantza izpirik gabe, aukeran, Arrasateko bizimodua aukeratuko nuke.

Portugaleko jendea, bestalde, oso pobrea da. Hemengo pobreziak asko harritu nau. Ez nuen ez Lisboa, ez orokorrean Portugal, hain pobreak zirenik espero.



I.U.

**Praktikak egitera**
Iker Urtzelai bere ikasketak praktikara eramateko joan da Lisboara. Orokorrean, asko gustatu zaio Portugal.

**Ba al duzu harremanik zure Arrasateko lagunekin?**

Bai, e-postaz komunikatzen naiz eurekin. Zein ederra den internet!

**Zer botatzen duzu faltan zure herritik?**

Gauza asko. Orain, bat-batean, bururatzen zaizkidanak? Ba, lagunak, familia, neskalaguna, motorra, etxeko janaria, nire etxeko ohea… Hainbat gauza. Herrimin nahikoa dudala esan daiteke.

**Zein ezberdintasun aipatuko zenituzke hemengo eta Portugaleko jendearen artean?**

Portugaleko jendearekin lanean nagoenean izaten naiz harremanetan. Eta lanean ere, oso zabalak eta maitekorrak dira. Oso ondo eramaten naiz eurekin, barre baten igarotzen dut eguna.

Portugaldarrek asko gogoratzen didate marokoarrei; patxadatsuak dira, eta gidatzerako orduan, eroen parekoak.

*Uavision* izeneko enpresan egiten dut lan. Ikerketa lanak egiten dituzte, hamaika arlo ezberdinetan: agronomia, orografia…

**Zeintzuk dira Portugalen alde onak? Eta txarrak?**

Hainbat alde on ditu Portugalek. Hasteko, nahiko merkea da eta hori abantaila handia da. Gainera, oso hondartza politak ditu eta lehen aipatu bezala, oso zabala da hemengo jendea. Lisboa, bestalde, oso hiri polita da, sekulako behatokiak daukza.

Alde txarren artean, pobrezia aipatuko nuke.

**kale inkesta**

# Maiatzeko zubia eta herrian geratu zara. Zergatik? Baduzu kanpora joateko ohitura?



**Marisol Gonzalez**
Langilea
Bergara

Aste Santua pasa zela ere ez da denbora asko. Orduan atera ginen kanpora eta orain abuztura arte itxarongo dugu. Dena dela, Azpeitian egon ginen trenean ibiltzen, atzo Errioxan... Badago zer ikusi.



**Jon Garagorri**
Langilea
Bergara

Neretako ez da zubirik egon. Lan egin dut eta ezin kanpora joan. Denda bat daukat eta horregatik ez dut nik sekula zubirik izaten. Horrez gain, ume txikia ere badugu eta ezin hara eta hona ibili.



**Jabier Gonzalez**
Langilea
Bergara

Oraingoan ezkontza tokatu zaigu parean eta ezin kanpora joan. Bestela badugu ohitura zubietan kanpora joateko, urrutira ez bada ere. Laster, herriko jaietan goaz kanpora, Budapestera astebeterako.



**Josune Ganboa**
Langilea
Bergara

Dirua falta dugu. Dirua bagenu Hollywoodera joango ginateke, baina ez dugunez herrian geratu behar. Gero gainera jaiak datoz, gauza asko batera, eta ezin da denera iritsi. Baina beti gaude prest maleta egiteko.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Pibotak espaloian**
Arrasateko bizilagun batek bere kexa azaldu nahi du Jose Luis Iñarra kalean ipini dituzten piboten harira. "Ondo iruditzen zait autoek espaloi gainean aparka ez dezaten pibotak ipintzea, baina espaloiari hainbeste toki kentzea ez da bidezkoa. Oinezkoendako apenas utzi dute tokirik zati batzuetan eta besteetan ere asko estutu dituzte espaloiak", esan digu irakurleak. Bere ustez, espaloian bazterrerago ipini behar zituzten edo espaloia jaitsita.

BERGARA
**> Labegaraietako parkea zikin**
Guraso batek deitu digu Labegaraietako umeendako parkearen egoera salatzeko. "Parkea bera berritzea ez legoke gaizki, izan ere, umeendako arriskutsua da ez duelako babesik ibai aldean eta zorua ere ez da egokia. Baina konpondu ezean gutxienez garbitzea eskatzen dugu. Umeekin jolasera joateko itxura negargarrian dago", esan digu Labegaraietako bizilagunak.

ANTZUOLA
**> Dantzari eguna**
Antzuolako herritar batek Oinarin dantza taldekoak zoriondu nahi ditu, baita inguruko beste dantzariak ere, joan zen domekan ikuskizun polita eskaini zutelako herrian. "Toki askotako dantzak ikusteko aukera eman ziguten eta giro polita ipini zuten. Urtean barrena lan asko egiten dutla bistakoa da", esan digu.

**usteak uste**

**Irati Agirreazaldegi**

## Maiatzaren lehena, langileena?

Eguena. Maiatzaren lehena. Egun seinalatua, baina norena? Langileena.

Langileon eguna. Lanean "ospatu" duguna. Beste batzuek, ordea, etxetik kanpora egin dute jarduna.

Egun horren aitzakian langile gehienek zubi. Aldarrikatzeko opor egunak baino ez daudela dirudi. Batzuek lan istripuen aurkako protestan dihardutenean, besteek auto istripuei beldurrik izan gabe urrutira, lantegiko itzala eguzkiak ordezkatu eta itzuleran ez egoteko zuri-zuri.

Astelehenean, ordea, lanera buelta eta ezin joan lantegitik iheska. Orain alperrik dira mila eskaera eta hainbeste protesta. Tokatzen zitzaigunean egin bagenu denok protesta... Baina ez, lana baino guztiok askoz nahiago dugu opor eta festa.

**zorroztailea**



**Juan Luis Azkarate**

# Praia da Luz

"Madeleineren desagerpenatik urtebete betetzen denean McCanndarrek erasoaldi mediatiko bat sustatuko dute txikiaren bilaketa berpizteko asmoz. Honakoa "nazioartean arreta bereganatzeko azken aukera" izan daitekeela diote."

El Diario Vasco > 2008-05-03




Psikiatrek aztertu beharko lukete zergatik erakartzen gaituen horrenbeste krimenak, baina ikusi besterik ez dago pelikula nahiz nobeletan zein den gehien errepikatzen den gaia. Hori bai, fikziozkoak baino, aukeran hobeto krimen errealak.

Oraindik argitzeko dagoen desagerpen baten urtebetea bete berri da, Madeleine McCannena, alegia. Orain askoz makabroagoa den beste kasu batek lapurtu dio arreta mediatiko guztia, Amstetten mamuarena, hain zuzen; baina, tira, Algarveko desagerpenak, finagoa izanik, baditu oso interesgarria egiten dizkion ezaugarri asko.

Kate eta Gerry MacCann goi-klaseko senar-emazte britainiar gorrotagarri tipikoak ditugu, hasiera hasieratik erakutsitako prepotentzia eta handikeriagatik. Maiatzaren 3an, beste lagun ingelesekin batera erresorteko jatetxean *vinho verde* lepo edaten ari zirela, hiru urteko Madeleine eta bi urteko bere bi anai hoteleko logelan bakar bakarrik utzita, neskatila desagertu egin zen.

Lehenengo egunetik kasuaren inguruan sortu zen zirko mediatikoa itzelezkoa izan zen: McCann senar-emazteak, txikiekiak alde batera utzita, ia mundu osoan zehar ibili ziren bere alabatxoaren argazkia erakusten, komunikabideetan gaur bai eta bihar ere agertuz. Gutxi balitz, fundazio bat eratu zuten dirua jasotzeko, zenbait pertsonaia ospetsuren laguntza lortuz, eta Benedicto XVI. Aita Santua berarekin audientzia bat izatera heldu zirelarik. Baina, kasua aurrera joan ahala gurasoei buruzko susmoak zabaltzen ari zirela ikusita, Portugaleko poliziekin haserretu eta Augusto Pinochetek izandako abokatua kontratatu zuten McCandarrek. Euren kondizio sozialaren influentzia guztiak erabili bai, baina alper-alperrik. Urtebetea joan da eta Madeleineren arrastorik ez; nahiz eta hasiera batean, eta erreskatearen dirutza amua zela medio, munduko bazter guztietan agertzen zen Madeleineren kristoren antza zeukan haurrik.

**"McCanndarrak ia mundu osoan ibili ziren alabatxoaren argazkia erakusten"**

**"Ez dakit sekula jakingo dugun zer gertatu zen Praia da Luzeko hotelean"**

Honez gero, ez dakit sekula jakingo dugun zer gertatu zen 2007ko maiatzaren 3ko gauean Praia da Luzeko hotelean, baina nik Algarveko polizia-inspektore batek esandakoarekin gelditzen naiz: "Ez dakit bera erruduna izango den ala ez, baina ez litzaidake bat ere gustatuko Kate McCann nire ama izaterik".

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Julen Iriondo, Irati Agirreazaldegi, Jon Berezibar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria




**> ARRASATE**
Erdi Aroko Azokaren V. ekitaldian 60 saltoki inguru jarriko dituzte aste bukaeran **> 10**





**> OÑATI**
Korpus jaien atarian barrakak jarriko dituzte plazako aparkalekuan, hilaren 14tik aurrera **> 12**





**> ESKORIATZA**
PSEk,EAJk eta EAk aurkeztutako 'mozio etikoa' atzera bota zuten eguaztenean **> 13**


**ESKORIATZA** > ATXORROTZ EGUNA

# Atxorrotzen XII. mendetik egondako gaztelua ekarriko dute gogora asteon

**JARDUNALDIAK**
Iñaki Sagredo eta Iñaki Padillak gotorlekuari buruz hitz egingo dute bihar, martitzena

**OSPAKIZUNAK**
Domekan, eguraldia lagun, jende asko igo zen Atxorrotz mendira



**EGURALDI ONA** Lagun giroan, eguraldi epela aprobetxatuz, eskoriatzar asko igo zen domekan Atxorrotzera hamaiketakoa egitera. IRATI AGIRREAZALDEGI


IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA


Domeka, eguraldi eguzkitsua, mendira joateko aproposa. Horrela egin zuten makina bat eskoriatzarrek Atxorrotz egunaren harira. Aspaldiko ohitura da maiatzeko lehenengo domekan Atxorrotz mendira igotzea koadrila edo familia giroan. Oinez batzuk, bizikletaz besteak eta izan zen zaldiz edo asto gainean igo zenik ere.

Hamaiketako goxoa zuten gertu antolatzaileek eta batzuek mokadua egiten zuten bitartean meza entzutera joan ziren besteak eta ermitako kanpaia jo zuten gehienek, zorte ona ematen omen du-eta. Sorkunde eta Jon trikitilarien doinuek alaitu zuten giroa Atxorrotzen eta izan zen dantzara animatu zenik ere, umeak batez ere. Izan ere, ume, gazte zein heldu eta adineko denetariko jendea elkartu zen eskoriatzarrek hain maitea duten mendian.

Eguerdian giroa freskatzen hasi zen eta herrira jaitsi ziren batzuk. Jaiak plazan jarraitu zuen dantza saio eta erromeriarekin.

**HISTORIA HANDIKO GOTORLEKUA**

Atxorrotz egunean mendira joateko ohitura aspaldikoa da eta hara joaten diren askok beharbada ez dakiten arren, aspaldi zegoen Atxorrotzen gaztelua. Eskoriatzari buruzko lehenengo aipamen idatziak XII. mendekoak dira, hain zuzen ere, Atxorrotz mendi tontorrean zegoen gazteluaren gainekoak. Leintz bailarako eremu zabala menderatzen zuen eta ibarreko biztanleei babesa ematen zien.

Herritarrei eta ingurukoei Atxorrotzeko gazteluaren berri eman guran Ibarraundi museokoek jardunaldiak antolatu dituzte aste honetarako. "Eskoriatzarrek eta ibarrekoek badakite mendia hor dagoela, baina jende askok beharbada ez daki gotorleku bat egon zela XII. mendekoa. Jakinarazi nahi dugu ibarreko historiaren parte izan zela", esan digu Ibarraundiko Ane Izurrategik.

Historiako pasarte garrantzitsuak gordetzen ditu Atxorrotzek. Antzinako idatzien arabera, Antso Jakintsua eta Antso Azkarra errege nafarrekin unitate administratiboaren egoitza izan zen; 1184tik Araba eta Gipuzkoako edukitzeen egoitza izatea egotzi diote; 1194an Gebara leinuko Pedro Ladronek hartu zuen ardura; 1195ean Antso Azkarraren izendapenez, Lope Santsezek Arluzeako tenentzia utzi eta Arabakoa eta Gipuzkoakoa hartu zituen Atxorrotzen; 1199-1200 urteetan errege gaztelarrek eskuratu zuten; eta badira aipamenak XV. mendean gazteluari egotzi diotenak bandoen arteko liskarrak geldiarazteko papera ere.

Jardunaldietan Iñaki Sagredok eta Iñaki Padillak horrelako kontuak izango dituzte hizpide. "Atxorrotzera joanda baliteke ez nabarmentzea aztarnarik, baina airetik begiratuz gero harresiaren arrastoak sumatzen dira", aurreratu digu Ane Izurrategik.

Atxorrotzeko gazteluaren inguruan egin diren indusketei buruz ere berba egingo dute adituek. Lehen aurkikuntzetan eta 1926ko indusketetan jasotakoak ez dira gorde. Gero, 1968an Ignacio Barandiaranek gidatu zuen orain arte egin den azterketa sakonena; azkenak, berriz, Mertxe Urteagaren eskutik egin ziren 2001-2002 urteen artean. "Etapa ezberdinetako aztarnak aurkitu dira: brontzezko puntak, objektu pertsonalak, txanponak…" esan digu Ane Izurrategik. Beste horma zati batzuk ere azaldu omen dira, baina gainean baseliza eraiki zuten.

Hitzaldiaren izenburuak berreskuratzeari buruzko aipamena egiten badu ere, Ibarraundikoak oraingoz konforme leudeke herritarrek Atxorrotz gazteluaren historia berreskuratuko balute euren memorian mendira doazen bakoitzean.

## Jardunaldiak Atxorrotzi buruz

**6, martitzena**
19:00 Ibarraundi museoan.
- Bideo emanaldia: *Nafarroako gazteluak.*
  Egileak: Nabarralde eta Iñaki Sagredo.
- Hitzaldia: *Castillo de Atxorrotz. Historia y posible recuperacion.*
  Hizlaria: Iñaki Sagredo

**8, eguena**
19:00 Ibarraundi museoan.
Hitzaldia: *Espacio de frontera: las fortificaciones alto medievales de Gipuzkoa.*
Hizlaria: Iñaki Padilla



**GAZTETXOAK** Iazko irudiak erakusten duenez, gaztetxoak izan ohi dira azokako ikuskizunetaz gehien gozatzen dutenak. GOIENKARIA

**OSPAKIZUNAK** > V. ERDI AROKO AZOKA

# Herriaren protagonismo berezia aurtengo azokan

Datorren zapatu eta domekan 60 saltoki inguru izango dira Arrasateko alde zaharrean. Berritasuna herriko elkarteen parte hartzea izango da aurten

**JOKIN BEREZIARTUA**> ARRASATE

Aurten bost edizio beteko ditu dagoeneko Erdi Aroko Azokak. Aurreko edizioen arrakasta borobila izan da lehenengoarena batez ere, jendeak ezagutzen ez zuen ekitaldia izanik kuriositate handia baitzuen zein ekitaldi mota zen jakiteko. Urte horietan guztietan Arrasateko kaleak jendez lepo izan dira saltokietako hamaika produktuez eta ikuskizun eta kalejira ezberdinetaz gozatzen.

Arrasateko Udala izan da urte hauetan guztietan azoka antolatzeaz arduratu dena. Hori bai, Nafarroako Naparbideak kooperatibaren laguntza ezinbestekoa izan da herriko kaleak Erdi Aroan murgildu ahal izateko.

Aurtengo azokari begira, udaleko Kultura Sailak 60 saltoki jarriko dituztela iragarri du. Saltokiok Erdiko Kalen, Iturriotzen, Seber Altuben eta Herriko Plazan kokatuko dituzte, eta goizetik iluntzera arte eguerdiko etenaldiarekin, noski zabalik izango dira. Beraz, erosleak ez du ordutegiaz kexatzeko motiborik.

Postuotan denetarik ikusi, erosi eta dastatu ahal izango da, urtero moduan. Hala, txokolatea, eztia eta gazta dastatu, eta bitxiak, zilarrezko eta narruzko eskulan ezberdinak eta beste hainbat artisautza lan ikusi eta erosteko aukera izango da azokara joaten direnentzat.

Erdi Aroko Azokaren helburuetako bat herria garai hartaz mozorrotzea da. Horretarako, nola ez, bandera, ikur eta beste hainbat elementu apaingarri jarriko dituzte kaleetan.

**HERRIKO ELKARTEEN PRESENTZIA**

Erdi Aroko Azoka arrakastatsua izan da oro har orain arte, eta hainbat arrasatearrek hartu izan du parte bertan. Hala ere, zenbait herritarrek azokaren ezaugarri bat kritikatu egin dute: hutsune edo akats garbia zegoela erdi aroaren irudikapena egiterako orduan. Euskal artisau, baserritar eta saltzaileen hutsunea, alegia.

Urtetik urtera akatsa zuzentzen eta hutsunea betetzen joan dela esan daiteke. Horren adierazle garbia da aurtengo edizioan saltzaile gehienak euskaldunak edota arrasatearrak izango direla.

Azkenik, berritasun modura herriko hainbat elkartek hartuko dute parte jaialdia borobiltzeko. Hala, Doke Antzerki taldeak *Ezkontza* lana antzeztuko du eta Arrasateko Trikitilari Taldekoak eta Txatxilipurdikoak giroa alaitzen izango dira; AEDkoek, bestalde, orain hilabete batzuk Arrasateko erdigunean egindako ibilaldi historikoa errepikatuko dute.

**IKASTAROAK** > ILARGIAREN ERAGINA NEKAZARITZAN

# Nekazaritza, ilargiari ere begira

Udalak eta *Itsasmendikoi* elkarteak antolatutako hiru ikastaro egingo dituzte; maiatzaren 10, 17 eta 24an izango dira, goizez.

**J.B.** > ARRASATE

Nekazaritza sistema ekonomikoaren gorabeheren menpe egoteaz gain, zerura begiratzera ere behartuta dago, ilargiak asko du-eta esateko uzta eta nekazaritzari dagozkion esparru ezberdinetan.

**ILARGIA INTERPRETATZEN IKASI**

Horrela, Arrasateko Udalak eta Itsasmendikoi Fraisoron elkarteak antolatu duten ikastaro hauek ilargiak nekazaritzan duen eragina aztertzea dute helburu. Ikastaroetan gaiarekin lotutako arlo ezberdinak jorratuko dituzte, hala nola, ilargiaren egutegiaren interpretazioa, ilargiak landareengan duen eragina eta lurraren bizi-emankortasuna.

Ikastaro hauetan parte hartzeko interesa duenak Itsasmendikoi elkartera deitu beharko du, telefono honetara: 943 69 21 66.

Hitzaldiak datozen hiru zapatutan izango dira, hilaren 10, 17 eta 24an. Goizez egingo dituzte, 9:00etatik 13:00etara, Arrasateko Ingurugiro Eskolan.

> EUSKALGINTZA

### Zaharberri elkarteak Yolanda Arrieta idazlea gonbidatu du 'Gurasoak lagun' ekimenerako

Zaharberri euskalgintzarako elkarteak, Yolanda Arrieta idazle eta literatura animatzaileak eskainiko duen hitzaldia antolatu du eguazten honetarako. Guraso euskaldun zahar zein berriei zuzenduta dago ekitaldia, eta literaturarekin zerikusia duten hurrengo galderei erantzungo die Arrietak: *zer dago ipuin baten atzean?, zer dago olerki baten atzean?, nola hasten da sortzen prozesua?, zer egin dezaket liburu batekin?, zertarako balio ote du literaturak?* Galdera asko, eta guztiak erantzuten saiatuko da Arrieta Kulturateko areto nagusian, 18:00etatik aurrera.

*Gurasoak Lagun* mintzapraktika saioetarako guraso talde hauetan haur hezkuntzako gurasoek hartzen dute parte gehienetan.

> OSASUNA

### Katxalin elkarteak bularretako minbizia hizpide izango duen hitzaldia antolatu du

Bularreko minbiziak protagonismoa hartu du azken urteotan. Gaitza goiz antzemateari garrantzia handia ematen zaio eta horretarako ondo informatuta egotea beharrezkoa da. Aste honetan, Katxalin bularreko minbizia duten emakumeen elkarteak antolatuta, hitzaldia izango da eguenean, Amaia Antzokian, 17:30etik aurrera.

Hala, hitzaldian Lourdes Aritziturri izango. Aritziturri Donostiako Onkologia Institutuko Onkologia Zerbitzuko ginekologoa da, eta gaixotasuna ondo baino hobeto ezagutzen du. Aditua, beraz, beste batzuen artean, gaitzaren arrazoien azterketaz, tratamenduaz eta prebentzioaz ariko da.

**EKONOMIA** > LANGABEZIAK GORA

# Aurtengo martxoan iazkoan baino 136 langabe gehiago egon da

Guztira 808 langabe egon da Arrasatean; % 60 emakumeak dira; eta adin talde nagusia 25 eta 40 urte artekoa

**J. B.** > ARRASATE

Arrasateko langabeziaren inguruan jasotako azken datuak 2008ko martxokoak hain zuzen ez dira oso itxaropentsuak izan. Urteko garai honetan langabeziak gora egiteko joera izaten du normalean. Hala, aurreko hiruhilekoan baino 64 langabetu gehiago erregistratu dira martxoan, hau da, azken hiruhilekoan langabezi tasak Arrasaten 0,56 puntu egin du gora.

Datu asko dira, baina zer esaten duten jakin ezean zenbakiok ez dute erabilgarritasunik, ez dute ezertarako balio. Beraz, datu horiek zer esan gura duten eta benetan arduratzeko modukoak diren jakiteko Marga Garmendia udaleko Enplegu Saileko teknikari-buruaren iritzia jakitea interesgarria litzateke.

**KEZKAGARRIA, BAINA OHIKOENA**

Garmendiak urteko garai honetan langabeen kopuruak gora egitea "ohikoa" dela dio. Teknikariak adierazi duenez, "enpresa ezberdinetako produkzio faseei oso lotuta dago martxoa aldera langabeziak gora egitea". Beraz, langabetu kopuruak gora egitea "beti ere kezkagarria" dela uste duen arren, azken urteetan ikusi den bezala, normalena da.

**LANGABETUAREN PERFILA**

Sektoreei erreparatuz gero, industria eta zerbitzuak dira langabe gehien dituztenak. Erabat logikoa da, Arrasaten bereziki industria eta neurri txikiago batean zerbitzuak direlako sektore nagusiak.

Bestalde, Garmendiak jakinarazi duenez, langabetuak "prestakuntza akademiko berezirik ez duten pertsonak" izan ohi dira. Adinari dagokionez, 25 eta 40 urte bitartekoak dira gehienak. Azkenik, enplegu sailetik langabetuntzako eta lana aldatzekotan dabiltzanentzako laguntza zerbitzua eskaintzen dutela gogorarazi nahi izan dute.

**UDALEKUAK** > XIPIZARO

# Xipizarok antolatutako udalekuetan izena emateko epea zabalik

Izena emateko epea astebetez luzatu dute, maiatzaren 9a arte, ume gehiagok izen emateko asmoarekin

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Datorren udarako Xipizaro ludoteka, umeentzako udalekuak antolatzen dabil. Ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 24a arte. Udaleku hauetan neska mutikoek izen-emateko epea, apirilaren 25ean amaitzen zen, baina astebete gehiagoz luzatu dute epe hori, hau da, maiatzaren 30a arte egongo da aukera. Aurten, 300 ume apuntatzea espero da eta hauekin batera, 30 begirale egongo dira. Xipizaroko arduradun Ainhoa Arbelaitzek adierazi digunaren arabera: "Pasa den urtean 320 neska mutiko inguru ibili ziren udalekuetan. Aurten ere asmoa hori da, gutxienez 300 ume apuntatzea, eta horregatik izen emate epea asmo horrekiN luzatu dugu". Udaleku hauek, Martinez de Irala eta Ipintza institutuan izango dute kokalekua. "Denbora librea ahalik eta ondoen pasatzea da helburua. Neska mutikoak goizeko hamarretan etorriko dira guregana eta eguerdiko ordu batak arte hainbat ekintza egingo dituzte gurekin batera. Adinaren arabera baina, udalekuek izango duten ordutegia ezberdina izango da: "Bi urteko umeak 10:30etatik 12:30era egongo dira, eta haur hezkuntzako lehen mailatik DBHko bigarren mailara artekoak 10:00etatik 13:00etara", adierazi digu Arbelaitzek.

**JOLASAK ETA IRTEERAK**

Ekintza ezberdinak egingo dituzte umeekin. Ekintzak, kanpora begira egitea da asmoa Ainhoa Arbelaitzek adierazi digunez, beti ere eguraldiak laguntzen baldin badu.

Eskulanak, jolasak, igerilekuetara irteerak, Gorlara, Osintxuko ludotekara, Angiozar aldera,..." Urtetik urtera ekintzak ez dira asko aldatzen. Beti ere adinaren arabera leku batera edo bestera joango dira neska mutikoak, baina beti ondo pasatzeko asmoz".

**BIDAIA** > HIRU EGUNEZ INGALATERRARA

## Helduen eskolan ingelesa ikasten dabiltzan 22 ikasle London ezagutzera joan dira

**J.Z.** > BERGARA

Apirilaren 17an, eta hiru egunez, Irizar jauregiko Helduen Eskolan ingelesa ikasten dabilen talde bat, London-en izan zen beraien irakasleekin. Guztira, ingelesa ikasten diharduten hiru gela ezberdinetako, 25 pertsona joan ziren, hogeitabi ikasle eta hiru irakasle.

**LONDRES INGURUAK**

Hegazkina Santanderren hartu zuten Londoneraino. Lau egunetako bidaia izan zen. London inguruak ikusteko eguakitza eta zapatua izan zuten. Besteak beste, Westminster-eko abadia (argazkia bertan aterata dago), Londroneko dorrea, Buckhinham palace, parlamentuko etxeak, hiriguneko kaleak... Ikasle hauekin Londonera joan zen Maite Martiartuk, kontatu digutenez "oso ondo pasatu genuen. Barre handiak egin genituen, ikasleek zekitena praktikatzen eta ez zekitena asmatzen". Dena den ingelesa ikasten jarraituko dutela esan digute , datorren urteko irteeran hobeto moldatzeko.



Ikasleak, Westminster-eko abadian ateratako argazkian. EPA

> JAIAK

### Pazko jaietan txosnak ipintzeko lau eskaera jaso zituen Udalak eta adjudikatu dituzte dagoeneko

Mendekoste jaietan txosnak ipintzeko eskaera epea amaituta, udaletxeak hiru elkarteren eskaera jaso zuen Bideberrin txosnak ipintzeko: Euskal Herrian Euskaraz. Euskal Herriak Bere Eskola eta Bergarako Ezker Abertzaleak. Guztira 8 txosna ipintzeko aukera zegoen, eta hiru aurkeztu direnez, hiru horiek arduratuko dira Bideberriko txosnetaz. San Martin Agirre Plazako txosnari dagokionez, Bideberrirako aurkeztu ziren talde berdinak aurkeztu ziren hona, eta hiruren artean, Presoen lagunak taldeari eman diote.

> AZPIEGITURAK

### Ubera auzoan, Anduri landetxera doan errepidearen hiru zati konponduko dituzte

Ubera auzoko bide bat konpondu egingo dute. Anduri landetxera doan errepidearen –3 kilometro ditu errepide horrek– hiru zati konponduko dituzte: 400 metro inguru guztira. Zati horietan lurzorua labainkorra delako konponduko dituzte: hormigoizko zorua kendu eta asfaltoa botako dute. Lanak udara aurretik egin gura dituzte. Orain lizitazio prozesuan dago.




Anduri landetxera doan errepidea. L.Z.

> MUSIKA

### Musika eskolak maiatzaren 17an eskainiko du urtero egiten duen Udaberriko kontzertua

Nobedadeekin dator Musika Eskolak urtero antolatzen duen Udaberriko kontzertua. Aurten, beste urte batzuetan ez bezala, zapatuan izango da kontzertua. Hain zuzen, maiatzaren 17an izango da, 19:00etan. Arratsaldea alaitzeko, baina, trikiti taldearekin kalejira egingo dute 18:30etan. Kontzertua Udal Pilotalekuan izango da; ondoren, 21:00etan, afaria egingo dute. Kontzerturako zein afarirako txartelak Musika Eskolako idazkaritzan eros daitezke. Sarrera bakarrik 3 euro kostako da; afaria eta kontzertua 16 euro; eta, kontzertuan parte hartzen dutenentzat afaria, 6 euro. Afarirako txartelak hartzeko azken eguna maiatzaren 15a da. Bestalde, Musika Eskolatik adierazi dute datorren urteko matrikulazio epea zabalik dagoela, ekainaren 15era arte.

> INFORMATIKA

### Gaur hasiko dituzte San Joxepe elkartean bigarren hiruhilabeteko informatika ikastaroak

Gaur hasiko dituzte San Joxepe elkartean informatika ikastaroak. 2008ko ikasturteko bigarren hiruhilabeteko ikastaroan lau ikasgai emango dira: hasiberrientzako ikastaroa, Internet, Power Point eta Photoshop. Hasiberrientzako ikastaroak ekainaren 11ra arte iraungo du. Astelehen eta eguaztenetan izango da 11:00etatik 13:00etara. Internet ikastaroa bihar hasiko da eta ekainaren 12ra arte iraungo du. Martitzenetan eta egunetan izango da 11:00etatik 13:00etara. Power Point ikastaroa astelehen eta eguaztenetan izango da 17:00etatik 19:00etara. Ekainaren 4ra arte iraungo du. Photoshop ikastaroak ekainaren 5a arte iraungo du eta martitzen eta eguenetan izango da 17:00etatik 19:00etara.

**JAIAK** > PLAZAKO APARKALEKUAN

# Maiatzaren 14tik 25era zabalduko dituzte Korpus jaietarako etorriko diren barrakak

Haurren egunetan bidaiaren prezioa 0,60 euro izango da; gainerakoetan, 1,50

Guztira sei barraka eta sei postu jarriko dituzte plazako aparkalekuan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Hogei egun geratzen diren arren, Korpus jaien aitzakian herrira etorriko diren barrakak zeintzuk diren zehaztu du Udalak. Euskadiko Ferialari Autonomoen Elkartearekin (AFADE) eta Jose Luis Sanz feriantearekin berba egin ondoren, lehenengo barrakak maiatzaren 14an zabalduko direla adostu dute.

Gainera, Korpus jaietako eta San Migel eta Errosario jaietarako bidaien prezioak zehaztu dituzte, dagoeneko: hain justu ere, bidaia bakoitza 1,50 euro ordaindu beharko dute. Era berean, sei bidaietako bonoak 7,50 eurotan salduko dituzte. Dena den, haurren egunetan, bidaiak 0,60 eurotan salduko dituzte. Korpus jaietan, prezio bereziak maiatzaren 17an salduko dituzte; eta San Migeletan, irailaren 26an.

Bestalde, lehenengo barrakak maiatzaren 14an iritsiko dira plazako aparkalekura. Horregatik, egun batzuk leheneago aparkalekuko sarrea itxi egingo da autoendako. Bitartean, Olaiturri eta lurrazpiko aparkalekuak erabili beharko dituzte. Aparkalekua, berriro, maiatzaren 26tik aurrera zabalduko da barrakak joan ondoren.



**BARRAKAK** Argazkian, iazko Korpus jaietako barraketako irudia. MIREIA BIKUÑA

**BARRAKAK ETA POSTUAK**

Udalak adostutakoaren arabera, sei barraka eta sei postu etorriko dira Korpus jaietan. Haurrendako babya, ohe elastikoak, matxinsaltoa, jumpinga, txiki parka eta txikiendako autoak dira etorriko diren barrakak. Gainera, puzgarriak eta jostailuak dituzten postu bana, ahateen kaseta, uztaiak eta eskopetak dituzten tiro kasetak eta txurreria egongo dira.

Irailean ospatzen diren herriko jai nagusietan barraka kopuru berdina ekarriko dute.

**LANAK**

## Azkoagain zelaiko lanak esleitu ditu Udalak

Construcciones Nuñez enpresak egingo ditu lanok hiru hilabetetan

**M.B.** > OÑATI

Apirilaren 24an egindako osoko bilkuran Azkoagain futbol zelaia birmoldatzeko lanak Construcciones Nuñez enpresari ematea erabaki zuten udal ordezkariek, 1.016.349 euroren truke. Udalak egindako deialdira 13 enpresa aurkeztu ziren, eta guztien artetik proposamen merkeena aukeratu zuten. Orain, Construcciones Nuñezek ekainaren 1etik abuztuaren 31ra arte egin beharko ditu birmoldatze lanak.

**SEI ALDAGELA BERRI**

Futbol taldeen entrenamenduak eta partiduak, eskolarteko kiroleko lehiak eta Herriko Futbol Txapelketako partiduak hartzeko belar artifiziala jarriko dute. Era berean, iluntzean entrenatu ahal izateko argi-posteak jarri beharko dituzte. Baloia zelaitik irten ez dadin, bederatzi metroko sarea jarriko dute zelaiaren bueltan. Bestalde, sei aldagela berri egingo dituzte zelaiaren sarreran dagoen berdegunean, eta taberna aldean dagoen teilapea konpondu egingo dute.



MIREIA BIKUÑA

## Madalenarako pasealekua itxita dago oinezkoendako

San Pedroko zubitik Madalena auzora doan bidea itxi egin dute. Hain zuen, bidegurutzean "200 metrora errepidea itxita" jartzen duen kartela jarri dute. Munazategi industrialdea egiteko lanak hasi dituzte beraz. Herritar askok paseatzeko erabiltzen zuten bidetik kamioak dabiltza aurrera eta atzera, besteak beste, lurra kentzen. Era berean, langileendako aldagelak ere jarri dituzte dagoeneko. Hortaz, oinezkoendako itxita dago bidea. Inguruko baserrietan bizi direnek autoa erabili dezakete, baina kontu handiz ibili beharko dute kamioiekin, bidea oso estua da-eta.

**KIROLA** > DEBAGOIENEKO TENIS TXAPELKETA

## Izena eman daiteke maiatzaren 7ra arte

Zubikoa kiroldegiko tenis pistetan jokatuko den Debagoieneko lagunarteko II. tenis txapelketarako izena eman daiteke etzira arte

**M.B.**> OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateko kirol zerbitzuek eta Zubikoa kiroldegiak Debagoieneko II. tenis txapelketa antolatu dute. Hain zuzen ere, izenemate epea zabalik dago etzira arte. Zubikoko kiroldegian eman behar da izena, *zubikoa@oinati.net* helbidean edo 943 71 63 75 telefonoan. Debagoieneko kirol zerbitzuetako bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek, 25 euro. Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra bete behar da: hain justu ere, 18 urte izatea.

**LEHEN FASEA LIGILLA MODURA**

Tenis txapelketaren barruan jokatzen diren partiduak hiru setera jokatuko dira. Norgehiagoken egutegia kiroldegiko arduradunek zehaztuko dute; hortaz, aldaketak egiteko bertara deitu beharko dute. Gainera, jokalariren bat partidura agertuko ez balitz, txapelketatik kanpo geratuko litzateke. Txapelketako lehen fasea ligilla modura jokatuko da. Zortzi jokalari onenak bigarren faserako sailkatuko dira. Aldiz, azkeneko lehiak kanporaketa bidez erabakiko dira.



OSOKO BILKURA Eguazteneko osoko bilkurako irudi bat. EAk dituen bi zinegotziak ez ziren azaldu bilkurara, mozioa aurkezteko eskaera egin bazuten ere. GOIENKARIA

**ESKORIATZA** > UDALA

# PSEk, EAJk eta EAk aurkeztutako mozio 'etikoa' atzera bota dute

Alkateak kalitateko botoa erabili zuen berdinketa hausteko; EBko zinegotziak mozioaren alde bozkatu zuen

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Lehenengo Arrasaten izan zen; jarraian, Bergaran; eta joan zen eguaztenean, Eskoriatzan. PSEk eta EAJk adostutako mozio *etikoak* ez zuen aurrera egiterik izan joan zen astean egindako osoko bilkuran. Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek kalitateko botoa erabili behar izan zuen, mozioaren bozketan irtendako berdinketa apurtzeko.

Mozioa Udalean aurkezterako orduan, EAko udal taldeak PSEk eta EAJk adostutako mozioa babestu zuen. Esandako hiru alderdiek sinatu zuten mozio hori osoko bilkuran sartzearen aldeko idatzia. Eguaztenean, ordea, alderdi horren zinegotzirik ez zen azaldu osoko bilkuran. EAk bi zinegotzi ditu Eskoriatzako Udalean. Horietako bat oporretan zegoela jakinarazi zuten.

**EB, MOZIOAREN ALDE**

Mozioak EAJren bi zinegotzi eta PSE eta EBren zinegotzi banaren aldeko botoa jaso zuen. EAEko lau zinegotziek kontra bozkatu zuten eta Elizateetako Leire Okaranza abstenitu egin zen. Gauzak horrela, alkatearen kalitateko botoa erabakigarria izan zen.

Testua Arrasaten eta Bergaran aurkeztutako bera zen. Bertan zera eskatzen da: "herri honetako udal karguek zalantzarik gabeko konpromisoa hartzea, pertsona guztiek merezi dituzten eskubideen defentsan eta hauek urratzeko edonolako saiakerak arbuiatzeko". Hori betetzen ez duten udal ordezkariei exijitzen die "beren gobernu karguak uzteko dimisioa aurkez dezatela".

Eskoriatzako alkateak gogor salatu zuen ekimen hori. Mozioa aurkeztu zutenen jarrera "hipokrita" kritikatu zuen. Horren harira, hasiera batean horrelakorik aurkeztu behar ez zutela eta ondoren kontrakoa egitea leporatu zien mozioa aurkeztu zuten alderdiei. Horrez gain, mozioa sinatu zuten EAko zinegotziak osoko bilkurara agertu ez izana salatu zuen.

**"LOTSAGARRIA"**

Lasagabasterren ustez,"lotsagarria da. Ez dakigu zer egin dugun, proba hau pasatzeko". Mozio etikoa bezala ezagutzen denarekin gertatzen ari dena "zirkotzat" jo zuen eta, alternatiba moduan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala jasotzen zuen beste mozio bat aurkeztu zuen. "Aldeko botoa ematen ez diotenei dimititzeko eskatuko diet", jakinarazi zuen alkateak. Aho batez onartu zen hori.

PSEko Iñaki Pierrugesek, bestalde, EAJren jarrera salatu zuen, mozioa eguaztenean eztabaidatzeagatik. Atzerapena eskatu zuen, ebakuntza batetik osatzen ari delako. Mozioaren testua eta udalez udaleko eztabaidaren data aurretik adostuta daudela erantzun zion EAJko Aitor Urrutiak.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

**IBILALDIA** > LOGROÑOTIK VALVANERAKO SANTUTEGIRA

# Aretxabaletar bi 'Valvanerada'n

Gauez egiten da, eta hamaika ordu behar izan zituzten 63,2 kilometro egiteko



HIRUKOTEA Jose Manuel Hierro, Jesus Mari Herrasti eta Fortunato Lopez. J. M. HERRASTI

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Tradizio handia du Logroñotik Valvanerako santutegira egiten den ibilaldiak (63,2 kilometro), eta parte hartu duten 1.700 lagunen artean bi aretxabaletar eta arrasatear bat egon dira: Fortunato Lopez, Jesus Mari Herrasti eta Jose Manuel Hierro. "Taldeka aurkeztu behar da, eta guk hirukotea osatu genuen", azaldu digu Herrastik.

Gauez egiten den ibilaldia da: "20:15ean atera ginen Logroñoko plazatik eta hurrengo eguneko 07:15ean iritsi Valvanerako santutegira", dio Herrastik. Asfaltozko bidea da, eta oso gogorra egiten dela gaineratu du: "Santiago bidean sartzen da apur bat, baina gehiena asfaltoa da. Azken 14 kilometroak dira gogorrenak, batez ere santutegira iritsi aurreko bostak, aldapa dagoelako". Baina Debagoieneko parte-hartzaileak ondo gertatuta joan ziren, eta ez zuten batere arazorik izan bukatzeko: "Nekatuta, baina hankak ondo genituela ailegatu ginen". Eta behin bukatuta, Lopezek Hormillan (Errioxa) duen upategian bapo bazkaldu zuten indarrak berreskuratzeko.

**ANTZUOLA** > GARRAIOA

# Gaurtik aurrera autobus geltokia Olaranen egongo da

Antiguan, Kalegoiko lanek iraun bitartean, hilabete pasatxoan egon den geltokia kendu egingo dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Kalegoin zoru berria jartzeko egin behar zituzten obrak zirela medio autobus geltokietan aldaketak izan ziren. Zumarraga aldera joaten diren autobusendako Antiguan ipini zuten geltokia, eta Bergara alderakoendako Olaranen.

Obrak amaitu zituzten arren hilabete pasatxoan mantendu dute orduan egindako geltoki aldaketa. Horrela, besteak beste herri barruko zirkulazioa arindu dute denbora tarte horretan; izan ere, aurrez herri osoa zeharkatu behar zuen autobusak, eta bidean gaizki aparkatutako autoek arazoak sortzen zituzten zirkulazioa oztopatuz, sarritan ezin pasatuta ibiltzen baitziren autobusak eta autoetan ere kalteren bat edo beste eragin zuten.

Aldaketa horien harira erabiltzaileek udalean eskariak egin zituzten autobus geltokiak lehen bezala ipintzeko. Gainera, Antiguako geltokiaren egoera ez zen batere egokia, sarrera baten erdian egoteak zekarren arriskuaz gain, aterperik ere ez zeukan. Hortaz, erabaki dute gaurtik aurrera Olaranen izatea geltokia, bai Zumarragarantz doazen autobusendako eta baita Bergararantz doazenendako ere.

**SAGASTIKO BIRIBILGUNEA**

Geltokietan gaurtik aurrera aldaketa egingo badute ere, autobusen ordutegia lehengoan mantenduko dute.

Bestalde, aurreikuspenen arabera, aurrerago izango da beste aldaketarik geltokiei dagokienez. Sagastin egitekoak diren biribilgunearen planoak esku artean dituzte eta lan horiekin arau aldaketak etorriko dira, alkatearen esanetan. Hortaz, baliteke geltokiaren kokapena ere aldatzea; bai obretan dihardutenean eta baita biribilgunea egin ostean ere. Hala ere, lan horiek luzerako joko dute oraingoz alkatearen esanetan. Izan ere, oraindik Foru Aldundikoek moldaketak egin ditzaketela uste dute udalean.



**BI NORABIDE** Bergarara eta Zumarragara doazen bidaiariek Olaranen hartuko dute autobusa. J. A.




**AFARIA** Ventos de Saudade taldeari begira afalostean. EDORTA ARANA

**LEINTZ GATZAGA** > OSPAKIZUNA

# 75 lagun elkartu ziren 'Krabelinen Gaua' ospatzeko

Gatzagarrekin batera autobideko lanetan dabiltzan dozena bat portugaldar egon ziren

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 25ean ospatu zuten Gatzagain jatetxean *Krabelinen Gaua*, hain zuzen Portugalen *Krabelinen Iraultza* gertatu zen egunean –1974ko apirilak 25–. Ekitaldia antolatzeko herritar batzuek sortu duten 25 abril Leintz Gatzagako konfradixiak egin zuen afarirako deia, eta 75 bat lagun elkartu ziren: gatzagarrak gehienak, aretxabaletar eta arrasatear batzuk eta dozena bat portugaldar, asko autobideko lanak egiten dabiltzanak.

Afalostea Soraluzeko Ventos de Saudade laukoteak girotu zien, eta gatzagarrek eta portugaldarrek, guztiek entzun zituzten gustura fado triste eta melodikoak. Ordu eta erdi pasatxo iraun zuen kontzertuak, eta behin baino gehiagotan abestu zutela himnoa jakinarazi digu afarian izan zen Edorta Aranak: "*Grândola, vila morena, Terra da fraternidade, o povo é quem mais ordena, Dentro de ti, ó cidade* himnoaren azken bertsioan Grândolaren lekuan Gatzaga jarri zutenak ere baziren".

**ELGETA**

# Erretiratuak informatika ikastaroetan

Elgetako lau erretiratuk dihardute udalak antolatutako oinarrizko informatika ikastaroan parte hartzen. Apirilaren 28an hasi ziren Nerea Billaren eskutik lehenengo nozioak ikasten.

Bi orduko bost saio egingo dituzte maiatzaren 7ra bitartean. Hortik aurrera, Word ikastaroa egingo dute. Bigarren ikastaro horretarako sei erretiratuk eman dute izena. Maiatzaren 12tik ekainaren 2ra arte luzatuko da ikastaroa. Teknologia berrietan trebatzen ari dira erretiratuak.



L.Z.

**ARAMAIO** > EUSKARA PLANA

# Eguaztenean bilera irekia egingo dute euskara plana lantzen jarraitzeko

Aramaioko Udala datozen hiru edo lau urteetarako euskara plana lantzen ari da Emun kooperatibak lagunduta

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzeko plana lantzen ari da Aramaioko Udala. Horretarako, baina, ezinbestekoa ikusten dute herritarren parte-hartzea.

Emun Kooperatibarekin batera ari dira lantzen plan hori. Esan bezala, baina, herritarren inplikazioa eskatzen dute lan horretarako. Maiatzean, eguaztenero, bilera irekiak egingo dituzte herritarren iritzia eta kezkak ezagutzeko. Lehenengoa datorren eguaztenean izango da, 19:00etan, pleno aretoan.

Dena dela, baliteke azkeneko momentuan lekua aldatzea. Izan ere, apirilari dagokion osoko bilkura atzeratu egin dute eta datorren eguaztenean egingo dute. Beti bezala, 18:00etan izango da. Hori horrela, Euskara Sailetik azaldu dute 19:00etarako plenoa bukatu barik badago, bilera udaletxeko beste gelaren batean egingo dutela.

**OSOKO BILKURA**

Eguazteneko osoko bilkuran, besteak beste, Eguzkierripako azpiegitura lanen laugarren ziurtagiria onartzea bozkatuko dute. Kultura arloan, bestetik, euskararen erabilera sustatzeko afari kafe antzoki moduko bat egiteko diru eskaera egingo du Kultura batzordeak. Batxilergoko ikasleei garraiorako diru laguntzak emateko aukera ere eztabaidatuko dute maiatzaren 7ko osoko bilkuran.




**> MENDIA**
'Hiru haundixek hiru egunetan' zeharkaldian, 40 lagun aurten **> 19**





**> PILOTA**
Elgetako lau t´erdiko txapelketa eta Bergara Hiria **> 20**



**> GARIKOITZ ARREGI**
Kilometro mordoa darama bizikleta gainean txirrinduzale bergararrak. Bartzelona-Perpignan-Bartzelona ziklomaratoian hartuko du parte aurki **> 21**






**ERASOAN** Partiduko lehenengo ordubetean izandako aukeretan fin ibili zen Ordizia eta alde handia hartu zuen markagailuan. JOSETXO ARANZABAL

**FUTBOLA** > UDA 2-ORDIZIA 4

# Aretxabaletari irabazita mailaz igotzetik gertuago dago Ordizia

**ALDEA**

0 eta 3 aurretik jarri arren gol bakarrera hurbildu zen UDA, baina ezin berdindu

**EPAILEA**

Ez zen ondo ibili: penalti izan ez zirenak ikusi zituen, eta izan zirenak, ordea, ez

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA

Zerbait jokoan duen taldearen eta dagoeneko jardunaldi batzuetan gauzak ahal bezain ondo egitea beste helbururik ez duenaren artekoa. Alde horixe igarri zen nabarmen Ibarran jokatutako partiduan. Preferente mailako liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, lidertza defendatzeko asmoz iritsi zen Ordizia, eta hori ezagun zen Goierriko jokalarien intentsitatean: gogotsu atera ziren zelaira, baloi guztiak indartsu borrokatuz eta oina eta gorputza beldurrik gabe sartuz. Jabe jakinik gabeko baloiak eurendako izan ziren gehienak, eta baita aldaratze eta bigarren jokaldiak ere.

Jokoari dagokionez, Ordiziak ez zuen beste munduko ezer egin behar izan markagailuan alde polita lortzeko: zelaian ondo kokatuta egon, eta izandako aukera apurrak aprobetxatu. Bizpahiru abisu emanak zituen Ordiziak partiduko lehenengo ordu-laurdena betetzerako. Orduan gertatu zen aurreneko jokaldi eztabaidagarria: Ordiziako jokalari baten boleak Aretxabaletako atzelari batengan jo zuen, epailearen ustez besoan; horrela izanda ere, nahita ez zion eman. Penaltiz aurreratu zen Ordizia. Ordura arteko eraso ahalegin gehienak eskuinetik zituen eginak kanpoko taldeak, bigarren gola ordea ezkerretik egindako bat-biko baten ondorioz heldu zen, hamar minutu geroago.

Bigarren zatian hobeto atera zen Aretxabaleta, aldea murrizteko gogoz, baina berriz ere Ordiziak eman zuen aurreneko kolpea. Ordu-laurdena pasatuta etxekoen atzealdeko zalantzak baliatu zituzten ordiziarrek hirugarren gola egiteko.

Dena erabakita zegoela zirudienean iritsi zen etxekoen erreakzioa: izan ez zen penalti bat sartu zuen Arriagak, eta Ibanek ezustean harrapatu zuen kanpoko atezaina urrutitik egindako jaurtiketa batean. Lau minutu falta ziren arauzko denbora betetzeko. Denbora betetzear zela penalti argia egin zioten ordurako aurrealdean ari zen Rubeni, baina epaileak ez zuen adierazi. Hurrengo jokaldian, kontraerasoan egin zuen Ordiziak laugarrena.

## Debagoieneko taldeak, ligako epaile

Aloña Mendik irabazi egin du jardunaldi honetan –1 eta 2 Hernanin–, beraz, oraindik matematikoki horrela izan ez arren, oñatiarrak ere salbu direla esan daiteke. Liga amaitzeko hiru jardunaldi falta dira, eta hemendik aurrera ezer gutxi izango dute jokoan gure taldeek. Eurek ez, baina bai euren aurkariek. Esaterako, jardunaldi honetan hiru puntuko errenta lortu du sailkapenean Ordiziak, berak Aretxabaletan irabazi eta Real Unionek Arrasaten ezin izan duelako gauza bera egin. Mondrak bana berdindu zuen irundarrekin, Julen Herizen golarekin irabazten hasita. Bigarren zatian indartsu atera zen Real Union, garaipena behar zuelako, baina berdinketa besterik ez zuen lortu. Datorren jardunaldian, berriz, Trintxerpe –Real Unionekin berdinduta dago– hartuko du Aloñak etxean.



**IGOERA OSPATZEN** Argazkian, Ander Atxa, Gorka Kintana, Ander Alartzia eta Jagoba Gamarra, taldeko beste jokalariekin eta zaleekin batera atzoko garaipena ospatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**SASKIBALOIA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN IGOERA

# Denboraldi bikaina egin ostean, MUk EBA ligarako txartela eskuratu zuen atzo Iturripen

Partidu bakarra galdu du MUk orain arte jokatutako 26 partiduetan; bi jardunaldiren faltan, txapeldunak ditugu

Arazorik gabe irabazi zioten Urdanetari atzo: 96-80. Partidu amaieran, zaleekin ospatu zuten igoera

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Azkenean, bai. Azken denboralditako ahaleginetan huts egin ostean, Mondragon Unibertsitateak EBA ligarako igoera eskuratu zuen atzo. Bi jardunaldiren faltan, lehen maila nazionaleko txapeldunak ditugu arrasatearrek: sendo jardun dute denboraldi osoan zehar eta atzo ere ez zuten hutsik egin. Hiru aukera zituzten igoera lortzeko, baina lehenbizikoan erabakita uztea nahi zuten. Iñaki Merinoren mutilek ez zuten inolako arazorik izan Urdaneta taldea menderatzeko: 96-80 markagailuarekin nagusitu zitzaien bizkaitarrei, atzo arratsaldean Iturripen jokatutako partiduan. Alde handiagorekin irabaz zezaketen, baina azken minutuetan, garaipena eskuan zutela, intentsitatea alde batera laga eta lasai jokatzen hasi ziren, denboraldian lortutakoaz zaleekin ospatzera. Minutu gutxiago izan dituzten jokalariak ere kantxaratu zituen Merinok, guztiek igoeraz goza zezaten. Azkenerako, jaia izan zen Iturripeko harmailetan. Ez da lorpen makala MUK eskuratutakoa; datorren denboraldian EBA ligan lehiatuko dira. Gipuzkoan, Bruesa Basket taldearen atzetik bi talde izango dira orain EBA ligan: Iraurgi azpeituarrak eta MU.

**15 URTE GEROAGO BUELTAN**

Azken aldiz orain dela 15 urte lehiatu zen Arrasate aipatutako kategorian. Orduan hiru denboraldi iraun zuten. Jon Basurko Ointxe elkarteko presidenteak atzo adierazi bezala, oinarri sendoak beharko ditu MUk hurrengo denboraldiari ekiteko. Taldeari dagokionez, lauzpabost aldaketa izango direla aurreratu zigun Iñaki Merino entrenatzaileak.

Edozein modutan, lortutakoa ospatzeko eguna zen atzokoa eta 300 bat zale elkartu ziren Iturripeko harmailetan. Lehendabiziko minutuetan indarrak parekatuta izan ziren eta bizkaitarrek eutsi egin zioten MUri atsedenaldira arte: 28-26 lehen laurdenean eta 55-49 atsedenaldian. Baina etxekoek ez zieten zaleei huts egiterik nahi eta bigarren jardunaldititk aurrera, euren benetako maila azaldu zuten. Urruneko saskiratzeetan punteria ikaragarria duen taldea da MU. Joko estatikoan zailtasun gehiago agertzen ditu taldeak. Lau minu-



tu eta 18 segundoren faltan, 26 puntuko aldea zuten alde (87-61) baina azeleragailuari zapaltzeari utzi, eta freskatzen zuten xanpainarekin hasi ziren pentsatzen. Ospakizunetako ordua iritsia zen. Bitartean, Urdanetak aldea murrizteko aukera aprobetxatu zuen.

**JOKALARI GUZTIAK KANTXAN**

Gorka Kintana izan genuen atzo puntu gehien egin zuena: 30. Esan bezala, guztiek izan zuten jaiaz gozatzeko aukera eta denek lortu zuten punturen bat edo beste. Igor Peña eta Aitor Zeziaga izan ziren jokatu ez zuten bakarrak, lesioak tarteko. Gainerako txapeldunak hauek dituzue: Imanol Zeziaga (11 puntu atzo), Ander Atxa (13), Antxon Hernandez (11), Iñigo Biain (5), Jagoba Gamarra (6), Ander Mallabiabarrena (2), Mikel Arejolaleiba (6), Gorka Alartzia (11), Txomin Elortza (2) eta Ugaitz Iruretagoiena (1). Zorionak guztiei.



**NAGUSI** Gorka Kintana (irudian) izan genuen saskiratzaile onena, 30 punturekin. J.A.



**TAKTIKA** Iñaki Merino aginduak ematen bere jokalariei, hutsarte baten. J.A.


**SASKIRA** Iñigo Biain, jaurtitzen. J.A.


**ZALEAK** Urte osoan moduan, zaleen babesa izan zuen MUk atzo Iturripen. J.A.


**TENTSIOA** Nerbioak MUren aulkitxoan. Guztiek jokatzeko aukera izan zuten atzoko igoera festan. J.A.

## PROTAGONISTEN IRITZIAK



**Jon Basurko**
Presidentea

Saskibaloiarekiko zaletasuna eta ibarreko taldeekin elkarlana bultzatzea dira helburu nagusiak. Erronka handia da guretzat EBAra igotzea, zalantzarik ez. Badaukagu lana taldea prestatzen.



**Jagoba Gamarra**
Kapitaina

Kontrakoa dirudien arren, ez da erraza gertatu igoera lortzea. Gogor borrokatu behar izan dugu. Pertsonalki, askoz ere gehiago gozatu dut igoera honekin orain dela 15 urte lortutakoarekin baino.



**Iñaki Merino**
Entrenatzailea

Arrasaten emandako lehen denboraldian igoera lortzea itzela da. Jokalari guztiek egindako lana eskertu nahi dut, dena eman dute eta. Laster hurrengo denboraldiko taldea osatzeari ekingo diogu.



**Ander Atxa**
Jokalaria

Denboraldi bikaina egin dugu eta gauza handia izan da igoera lortzea. Talde barruko giro onak zerikusi handia izan du horretan. Gazteok ere izan ditugu aukerak eta gozatzeko unea da orain.




SVMS
SERVIMASA
*Sukaldeko altzariak eta osagarriak*

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

# Debagoieneko WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
ASEGI
www.asegim.com
ESTRADOS
www.consultoriaestrados.com
LIZKER
www.lizker.com

**AKADEMIAK**
BASTIDA
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

**ANTZINAKO ALTZARIAK**
ZUMADIA
www.zumadia.com

**ARETOAK**
360 ARETOA
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

**ARKITEKTURA ESTUDIOA**
BIARK
www.goiena.net/blogak/biark

**ARRANDEGIAK**
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

**ASEGURUAK**
AXA ASEGURUAK
www.axawinterthur.es
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguroslagunaro.com

**AUTO – KONTZESIONARIOAK**
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

**BITXITEGI TAILERRA**
OSKAR VITORIA
www.oskarvitoria.com

**EGUZKI OIHALAK**
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA
www. goiena.net/blogak/gorla

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**
SETALDE
www.setalde.com

**ELKARTEAK**
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

**ERAIKUNTZAK**
CONSTRULAN
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

**ESKULANAK**
IZEDER
www.goiena.net/blogak/izeder

**ESTETIKA ZENTROAK**
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
KIZKUR
www.kizkur.com
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura

**FISIOTERAPIA ZENTROA**
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

**FORMAZIOA**
LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA
www.iisj.es

**GARAJEAK / KONPONKETA**
AMG AUTOAK
www.amgautoak.com
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

**GARBIKETAK**
HEMEN
www.hemen-garbiketak.com
DENETIK GARBITASUN MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

**GIMNASIOAK**
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

**GOZOGINTZA EKOLOGIKOA ETA INTEGRALA**
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HARATEGIA**
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

**HAUR PARKEAK**
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEAK**
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

**HOTELAK**
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

**IKASTETXEAK**
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

**ILE-APAINDEGIAK**
IRUDI
www.comercialerrekabarren.com
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier
KIZKUR
www.kizkur.com

**INDUSTRIA HORNIDURAK**
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

**INFORMATIKA**
DCA COMPANY
www.dcacompany.com
ARITU
www.aritu.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**
HARRILUR
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**
KOROSTI
www.inmokorosti.com

**INPRIMATEGIA**
EGUZKIGRAF
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

**ITURGINTZA ETA BEROGINTZA**
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
www.goiena.net/blogak/urko

**JANARIAK**
ERREKABARREN FRUTADENDA
www.comercialerrekabarren.com
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu
ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK
www.goiena.net/blogak/arantxa

**JANTZI DENDAK**
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
GOIKO BENTA
www.goikobenta.com
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
IXAUN
www.goiena.net/blogak/ixaun
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberri
ZUMELAGA
www.zumelaga.com

**KIROL DENDAK**
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

**KONGRESU ETA BILKURAK**
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

**LANDETXEAK**
ARTEAGA
www.arteagalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
LAMAÑO-ETXEBERRI
www.goiena.net/blogak/lamaino-etxeberri
UXARTE
www.uxarte.net

**LANTEGI ETA TAILERRAK**
BATUAK S.A.
www.batuak.com
GAURKO, S.A.U.
www.gaurkosa.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
MIRVAT
www.mirvat.com
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINSA S.L.
www.carpinsa.com
SEIN BATU, S.L.
www.sein.es

**LEIHOAK**
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego
ION LEHIOAK
www.puertasyventanas-ion.com

**LORADENDAK**
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
KLOROFILA
www.klorofila.com
LORELAN
www.goiena.net/blogak/lorelan
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

**MERTZERIAK**
LEINTZ KINKILADENDA
www.comercialerrekabarren.com

**OINETAKOAK**
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta
MARI KARMEN
www.comercialerrekabarren.com

**OKINDEGIAK**
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
BEROGI
www.goiena.net/blogak/berogi
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

**OPARIAK**
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas
INSTITUTO OPTICO
www.goiena.net/blogak/optico

**OSTALARITZA**
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

**PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA**
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

**SUKALDERAKO ALTZARIAK**
BOLU
www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak

**TABERNAK**
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIKA… TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

**UMEENDAKO ARROPA**
HAURTXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

**ZERBITZU DIGITALAK**
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEAK**
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**MENDIA** > HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN

# Zalduondotik Muruara, gainez gain

## Eguraldi ona lagun, 40 lagunek hartu dute parte Arrasateko AEDk antolatutako zeharkaldian

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Zorteko izan dira *Hiru haundixek hiru egunetan* mendi zeharkaldiaren aurtengo edizioan parte hartu dutenak. Ibilbideak berez duen edertasunari eta AEDk antolatzen duen martxan beti izan ohi den lagun-giro onari, eguraldi paregabea batu zaio oraingo honetan.

Mendizaleen artean *Hiru handiak* bezala ezagutzen diren tontorrak –Aizkorri, Anboto eta Gorbea– kateatzen ditu zeharkaldiak, hiru etapatan banatuta. Aurtengo ibilbidea iazko bera izan da: Zalduondon hasi eta Aizkorri igo ostean Leintz Gatzagan amaitu dute lehenengo etapa; Leintz Gatzagatik Otxandio artekoa izan da bigarrena, Anbototik pasatuta; hirugarren egunean Gorbea igo eta Muruan amaitu dute zeharkaldia. Etapa bakoitzak 30 kilometro inguru ditu, eta guztira ia 100 egin dituzte mendizaleek. Gorabeherei dagokienez, denera 5.000 metro inguru igo dituzte, eta beste hainbeste jaitsi. Eguen, egubakoitz eta zapatuan egin dute martxa.

**HASIERA ZALDUONDON**

Guztira, 44 laguneko taldeak hartu du parte aurtengo edizioan, antolakuntzako lau kidek eta beste 40 mendizalek. Eguen goizeko zazpietan irten ziren Arrasatetik, autobusez Zalduondora joateko.

**"Eguraldi ederra izan dugu: eguzkia bai, baina haizetxoarekin bero handirik gabe"**

**"Parrandarako gogoa eta indarra ere izan du zenbaitek; Otxandioko tabernak itxi zituzten batzuk"**

Han hasi zuten oinezko bidea. Arabako lurretan gora, Aizkorrikoa izan zuten lehenengo tontorra (1.528 metro). Urbiara jaitsi eta Urkilla eta Elgeako mendizerrak zeharkatu zituzten ondoren, handik Leintz Gatzagara jaisteko. Arratsaldeko 18:30ak aldera amaitu zuten lehenengo etapa. Gatzagan afaldu eta lehenengo gaua pasatuta, Jarindon eta Orixolen barrena egin zituzten bigarren eguneko aurreneko kilometroak. Aramaion. Etxaguenen, izan zuten zerbait jateko eta edateko aukera. Zabalanditik gora, bigarren gaina zuten zain, Anboto (1.331 metro). Oleta aldera jaitsi, eta handik Otxandiora, bertan bigarren gaua pasatzeko; gaua pasa bai baina ez lotan, ez behintzat guztiek osorik: ordura arte egindako kilometroetan pilatutako nekea ez zen oztopo izan batzuentzat parranda txiki bat egiteko: "zenbaitzuk Otxandioko tabernak itxi zituzten", adierazi digu Jon Azkoaga antolakuntzako kideak.

Hirugarren eta azken etapa falta zen: Otxandiotik Barazar mendatetik gertu dagoen Saldropoko hezegunera egin zuten partehartzaileek, han indarrak berritu, eta Atxuriko harkaitz artetik Gorbeako gainera. Azken etapa hau antolakuntzako bi kidek ere egin zuten, behin euren eginbeharrak beteta. "Gure egitekoa izan da jan-edanen postuak hornitzea, aurrera eta atzera ibili gara; baina azken egunean gutako bik igotzeko gogoa genuen eta Gorbeara joan gara", azaldu digu Azkoagak.

Zapatu arratsaldeko 16:30ak aldera amaitu zuten zeharkaldia, Arabako Muruan. Zerbait jan, eta Arrasaterako bideari –autobusez– ekin aurretik zenbaitek errekan freskatu zituzten oinak, hiru egun eta ia 100 kilometroko bideoaren ostean. Hainbeste ordu eta kilometroan, nahitaez amaitzen dute gaztigatuta oinek eta zangoek; bestela, baina, eta eguraldiari dagokionez behintzat, zorte ona izan dute martxaren aurtengo edizioan parte hartu duten lagunek: eguzkia izan dute lagun, baina gehiegizko berorik gabe: "haizetxoa izan dugu denbora gehienean". Dena dela, batzuk lepo inguruak-eta erreta amaitu dutela aitortu digu Jon Azkoagak.

"Baina dena oso ondo atera da. Parte-hartzaile guztiek batera egin dute bidea, giro onean. Aurretik bidea ondo zekitenak joan dira, gida lanetan, eta gainerakoak jarraian", azaldu digu antolakuntzako kideak.



**KOADRILA** Zeharkaldian parte hartu duten lagunak Leintz Gatzagan, bigarren etapa hasieran. AED




**ANBOTON** Bidearen erdia eginda, Otxandiora jaitsi eta Gorbea igotzea falta zen. AED

Arrasateko AEDk antolatzen duena lehiakortasunik gabeko mendi zeharkaldia da. Bada. ordea, *Hiru haundiak* lotzen dituen baina lasterketa erara egiten den beste martxa bat ere, Manuel Iradier elkarteak antolatzen duena; aurreko edizioa 2006 urtean egin eta gero, aurten tokatzen da berriz ere: ekainaren 14an egingo dute XVI. aldia.

**MILA LAGUN EKAINEAN**

Dagoeneko izena emana ez dutenek, ezin izango dute, hala ere, zeharkaldiaren aurtengo edizioan parte hartu; 1.000 laguneko izenemate zerrenda aurreikusi du antolakuntzak, eta jada banatuta daude dortsal guztiak. Zalduondon hasi eta Otxandion amaituko da lasterketa, Aizkorri, Anboto eta Gorbea igo ostean. Lasterketak duen gogortasunaren seinale, azken edizioan 982 lagunek eman zuten izena, eta 300dik gora erretiratu ziren. Irabazlea Jose Luis Albizuri izan zen, probako 100 kilometroak 12 orduan eginda.



**KURUTZEA** Gorbea izan zuten azkeneko tontorra. AED

**PILOTA** > ETB KANTXA SARIA ETA BERGARA HIRIA

# Pilota harrobia Elgetan eta Bergaran

## Uztailaren 4ra bitartean lau t´erdiko partiduak egubakoitzero eta domekero Elgetan

## Bihar, martitzena, Bergara Hiriko finalerdiak Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita

**EDU MENDIBIL** > ELGETA

Elgetan, aurtengo ETB Kantxa Txapelketan, 194 pilotari lehiatzen ari dira. Lau t´erdiko txapelketaren 32. ekitaldia da aurtengoa. Oraingo aste bukaeran jokatutako partiduetan honako emaitzak izan dira: 23 urtez azpikoetan, Iraola, 22; Otxandorena 6. Jaunarena, 22; Iribar, 4. Urrutikoetxea, 22; Flores 2. Uzkudun, 9; Mendinueta, 22. Insausti, 22; Salaberria, 16. Yoldi, 22; Errarte, 14. Kadete mailan, Dorronsoro, 6; Legorburu, 22. Guaristi, 11; Bendoiro, 22. Mujika, 19; Aizpuru, 22. Etxaniz, 22; Mina, 14 eta, Larrañaga, 9; Irastorza, 22.

Finalak, ohikoa denez, Elgetako jaietan jokatuko dira, uztailaren 4an hain zuzen ere. Iazko txapeldunak Aitor Mendizabal antzuolarra (final zortzirenetan sartuko da aurten) eta Jaunarena leitzarra (kadete mailan) izan genituen. Jaunarenak nagusien mailan dihardu aurten eta egueneko jardunaldian erraz menderatu zuen Iribar, 22-4. Berarekin batera, 23 urtez azpikoetan, Cecilio eta Rico errioxarrak eta Onsalo nafarra ditugu faboritoen artean. Urrutikoetxeak ere aho zabalik utzi zituen zaleak egueneko jaialdian. Zaratamokoak aise irabazi zion Floresi, 22-2.

Aurrerantzean egubakoitzero (21:00etan) eta domekero (10:30ean) izango dira partiduak. Era berean, datorren martitzenerako, hilaren 13rako jardunaldia aurreikusita dago, 20:15ean.

**BERGARA HIRIA, BIHAR**

Bestalde, Bergara Hiria Txapelketa azken txanpan sartu da dagoeneko. Bihar, martitzena, bigarren finalerdiak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean: nagusien mailan Mendizabal antzuolarrak eta Larrinagak Renobales eta Arrastoa izango dituzte aurrez aurre eta 22 urtez azpikoetan Elezkano-Landaburu eta Idoate-Galarza bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Finalak Pazkoetako astelehenean jokatuko dira.



**LAU T´ERDIAN** Urrutikoetxeak maila bikaina azaldu zuen Elgetan, eguenean. 22-2 irabazi zion Floresi. JOSETXO ARANTZABAL



**FINALERDIAK** Mendizabalek eta Larrinagak Renobalesen eta Arrastoaren aurka jokatuko dute bihar, Bergaran. XABIER URTZELAI

**TXIRRINDULARITZA** > 46. LABEGARAIETA SARIA

# Mikel Iturriak irabazi zuen Labegaraietako lasterketa

## Bere taldekide Xabier Perezi helduta sartu zen helmugan, ihes eginda biak

**E.M.** > BERGARA

Andoaingo Txirrindulari Elkarteko Mikel Iturria eta Xabier Perez jaun eta jabe izan genituen eguenean, maiatzaren 1ean, jokatutako Labegaraietako 46. Txirrindularitza Sarian. Kadete mailako txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea izan zuten, eta Iturriak eta Perezek elkarrekin egin zituzten azken kilometroak, ihes eginda. Helmugara batera sartu ziren, eskutik helduta, baina epeileek Iturriari eman zioten garaipena.

Ikusle mordoa elkartu ziren Labegaraietako helmugan eguen arratsaldean eta giro ederra izan zuten txirrindulariek ibilbide osoan zehar. Aitor Laskurain plazentziarrak eskuratu zuen Lokatza-Sumofic taldeko onenari zegokion saria.



**SARITUAK** Mikel Iturria, ezkerrean, eta Aitor Laskurain, jasotako sariekin. E.M.

**MENDEKOSTE SARIA DOMEKAN**

Domekan, hilaren 11n, amateur mailako Mendekoste Sariaren 73. ekitaldia (Gipuzkoako txapelketa) jokatuko da Bergaran, 123 kilometroko ibilbidearekin.



JOSETXO ARANTZABAL

## Ointxeko gaztetxoak, Tau taldearekin

Arrasateko Ointxe saskibaloi elkarteak Musakolan duen lokalean, taldeko gaztetxoak elkartu ziren egubakoitzean, telebistatik Tau eta CSKAren arteko partidua jarraitzeko. Azkenean, gaztetxoek ezin izan zuten ospatu gasteiztarren garaipena: Tauk 79-83 galdu zuen errusiarren aurka eta Euroligako finaletik kanpo geratu ziren. Antza, Arrasatetik bidalitako animuak ez ziren nahikoa gertatu...

Milaka kilometro darama Garikoitz Arregi bergarararrak bizikleta gainean. Quebrantahuesos proban askotan ibili da baita Irati Expressen ere. Iaz Paris- Brest-Paris ziklomaratoia egin zuen Gorka Arrieta eta Jesus Martin lagunekin batera. Bergarara bueltan hatzamarrak txingurrituta zituen Garikoitzek; bi aste barru Bartzelonan izango da, beste ziklomaratoi batean.

**Garikoitz Arregi** > Zikloturista

# "Oihartzun ikaragarria duen proba da Paris-Brest-Paris ziklomaratoia"

**NEREA MENOR** > BERGARA

**Aspaldititik zikloturista da Garikoitz Arregi bergararra. Bresteko proba gogorrean (1.200 km) hartu zuen parte joan den urteko udan, 82 orduko emaitza lortuz. Laster, Bartzelonara joango da, Perpignaneko lasterketara; 40 ordutan amaitzeko asmoa dauka.**




Garikoitz Arregi eta Jesus Martin bergarararrak Bartzelona-Perpignan-Bartzelona egingo dute maiatzean. N.M.

**Paris-Brest-Paris lasterketa egin zenuen iaz. Esaten duten bezain gogorra da?**

Gorka Arrieta, Jesus Martin eta hirurok joan ginen iazko lasterketara. Oso proba luzea da; 1.200 kilometro egin behar dira ordutegi jakin baten barruan. Martxa regulada baten bezalakoa da, puntu batetik beste puntu batera ordutegi bat mantendu behar da. Psikologikoki oso ondo gertatuta joan behar zara: ordu asko ematen dira bizikleta gainean; motxilarekin joan behar da; ia ez da lorik egiten; gauetan gidatzen jarraitu behar da eta ez gaude horretara ohituta. Gainera, gure edizioa oso gogorra izan zen, euria izan genuen ibilbide osoan zehar.

**Ondo entrenatuta egotea ezinbestekoa izango da, baina, baita burugogor samarra izatea, ala?**

Bai, hori egia da. Guzti honetan sartu ginenean, konturatu ginen jende gazte oso gutxi joaten dela horrelako probatara. Hemen zaletasun handia dago, baina jendea gehiago preparatzen da Quebrantahuesos bezalakoetarako. Batez besteko adina 45 urtekoa zen, baina, nagusi izan arren, jendea oso ondo preparatuta doa, esperientzia handia dute, ohituta daude ordu asko pasatzera bizikleta gainean. Gu azkar ibiltzen ginen bizikleta gainean eta atseden hartzean gehiago aprobetxatzen genuen.

**Debagoienan oihartzun handiko proba al da Brestekoa?**

Dakigunez, duela zortzi urte ibarreko beste pertsona batek parte hartu zuen lasterketan. Ondorengoak gu izan gara, gure lehenengo aldia izan zen. Euskal Herriko beste hainbat jenderekin elkartu gara bertan; besteak beste, Ibarretxe lehendakaria lehiatu zen. Mundu mailan oihartzun handiena duen proba da. Mundu osoko jendea ikusi genuen han. Hego Amerikatik ia 600 pertsona joan ziren eta beste hainbeste Japonetik, Mexikotik, Normandiatik, Filipinasetik, Poloniatik, Errusiatik eta munduko edozein txokotatik.

**Zelan entrenatu behar da horrelako proba baterako?**

Breveta izeneko proba batzuk egiten dira lasterketara joan aurretik. Hauek dira guretzako entrenamendu garrantzitsuenak. Honetaz aparte, ordu asko sartzen ditugu bizikleta gainean egunero ez bada ia egunero.

**Birritan egin zenuten lo lasterketan zehar…**

Antolatzaileek gertatutako lo egiteko lekuak daude. Baina, jendeak inprobisatu egiten du. Hala ere, batzuetan ezin zara leku horietaraino heldu eta jendea edozein lekutan botatzen da, euri azpian, edozein zelaitan. Gu ondo ibili ginen, alde horretatik; bi aldiz geratu ginen eta ondo prestatutako leku hauetan egin genuen lo, lau bat ordu aldi bakoitzean.

**Gustua hartu diezue horrelako probei. Laster duzue beste hitzordu bat Bartzelonan. Noiz izango da?**

Maiatzaren 24an eta 25ean izango da. Hirurok joango gara. 614 km ditu baina 9.000 metroko desnibelak oso gogorra egiten du Perpignaneko proba. 40 orduko topea dago, baina, gure asmoa lasterketa bukatzea da. 35 bat ordutan egitea espero dugu. Aurretik, hilren 17an, 300 kilometrotako proba egingo dugu.

## Paris-Brest-Paris: 1.200 kilometro 90 ordutan

Lau urtetan behin egiten da Paris-Brest-Paris, munduko ziklomaratoirik garrantzitsuenetakoa. Hara joan aurretik hainbat proba homologatu egin behar dira, 200, 300 , 400 eta 600 kilometroetakoak hain zuzen. Iazko udako ekitaldian munduko txoko guztietatik etorritako 5.160 lagunek hartu zuten parte. 80 edo 90 ordutan egin behar da, bestela, deskalifikatuta geratzen zara. Proba gogorra da, lo gutxi egiten da, batzuk ez dute lorik ere egiten, baina helmugara heltzean oinaze guztiak ahazten dira.



Jesus, Gorka eta Garikoitz lasterketa hasieran, Parisen. GARIKOITZ

# ZAHARRAK BERRI SAIOA

zaharrak BERRI

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Aste honetan:



NOIZ: **maiatzak 7 eta 8**

NOR: **Amaia Diaz de Monasterioguren. Dietista**

GAIA: **Azala zaintzeko aholkuak**

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara, **SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA




**> JAZZALDIAN**
Arrasate Musikal Big Band Donostian gaur, udako Jazzaldiari begira **> 24**



**> ELKARRIZKETA**
Maite Aristegirekin berbetan, Lamaño-Etxeberriko nekazal-etxean **> 27**



**> TELEBISTA**
Ilazki Serrano 'Mihiluze'-ko kazetari bermeotarrari elkarrizketa **> 29**



**EL DOGHOUSE** Richard Dudansky izan zen gaueko zeremonia maisua. Argazkian, bere 17 urteko semearekin. IMANOL SORIANO

# Belaunaldi bi eta punk musika modurik irekienean, bat eginda

The Clashen jarraitzaileek eta UK punkaren zaleek zita izan zuten eguenean

Arrasateko hainbat musikarik bizia eman zioten 70-80 punk ingelesaren izpirituari

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Baliteke udaberria izatea, maiatzaren leheneko zubia ala San Andresko jaiak, baina kontzertuak hasi baino lehenago dagoeneko igarri zitekeen giroa eguenean 3.60n. Aretoa beteta eta belaunaldi pare batek topo eginda, The Clashekoen arrastoan festa giroa izan zen piztu zena. 70-80 hamarkadetako UK punkaren legatua jasotzeko Arrasateko The Magnificient 7 zeuden eta urte iraultzaile horien lekukotza konpartitzeko El Doghousekoak egon ziren. Disfrutatzeko modukogaua.

The Clashi egindako gurtza bikainarekin hasi ziren Magnificient 7koak. Never Surrender taldeak jarri zuen oinarria eta mikrofonotik herriko talde ezagunetako kideak txandatu ziren. Londreskoen abestirik ezagunenak jo zituzten eta gustuko gutxi geratuko zitzaizkien jotzeke, ia ordu bi jardun zuten-eta oholtzan. Hamarkada pare bat baino gehiago atzera eginda, bukaeran garai haien lekuko izandakoak batu zitzaizkien "zazpi magnifikoei"; aparteko lekukoak gainera. Nor RIP-eko Txerra eta Jul baino hobeto, sasoi hartako doinuak berpizteko. Ondo baino hobeto eta ikusleen gogoak piztuta amaitu zen gauaren lehen zatia: belaunaldi gazteak eta 80 hamarkadan izandakoak, bat eginda.

**BELAUNALDIAK**

Garai haietaz ere luze jardun dezaketenak El Doghousekoak dira. Haiek ere eutsi egin zioten festa giroari, modurik zabalenean uler daitekeen punk ikuskizunarekin. Aitatutako UK punka bai baina funkya moduko erritmoekin kolorea emanda; zegoen giroa bikain egokitu zirenak. Gainera, aurreko kontzertuan RIP-ekoek Strummer eta konpainiari omenaldia egin bazieten, ordainetan El Doghousekoei zegokien keinua itzultzea eta Arrasateko talde mitikoaren moldaketa pare bat jo zituzten. 101'ers-en bateria eta gitarra jotzaileak osatzen dute El Doghouse taldea. Taldeko buru den Dudanskyren 17 urteko semearekere jotzen du eurekin. Hemen ere, beraz, punkak elkartutako belaunaldiak bat eginda.

Bai batzuk zein besteek ikusleak gustura uzteko moduko ikuskizuna egin zuten. Punkak, musika moduan behintzat jarraitzailerik badauka.

**DONOSTIAKO JAZZALDIA** > 30 TALDE AURKEZTU DIRA ETA HAMARREK LORTUKO DUTE JOTZEA JAIALDIAN

# Jazzaldian jotzeko merituak egingo ditu gaur Arrasate Musikal Big Bandek

Gaur 20:00etan joko dute Victoria Eugenian aurtengo Donostiako Jazzaldian jotzeko txartela eskuratzeko. 16 taldetik 10 aukeratuko dituzte



**BIG BAND** Arrasate Musikaleko Big Banda ikuskizun baten ARTXIBOA

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Donostiako Jazzaldian joko duten 10 banden artean egotea da Arrasate Musikaleko Big Bandaren nahia. Horreratako, gaur Donostiako Victoria Eugenia antzokian onenen artean daudela erakutsi beharko dute. Guztia emateko gertu, Zigor Martinez bergararra gidari duen bandak ohi duen moduan swing eta jazz doinuak bai, baina latin eta funk erritmoak ere ekarrita, jazz jaialdirako eskubidea defendatuko dute . Hitzordua gaur dute beraz, 20:00etan Victoria Eugenia antzoki entzutetsuan eta doakoa da sarrera gainera.

Jazzaldirako tokiko taldeen aukeraketa lehiaketan hartuko dute parte A.M. Big Bandekoek. Azkenak dira jotzen eta arrasatearren aurretik, urtarriletik maiatzera bitartean, Pasaia, edota Debako musika bandez gain mota guztietako euskal taldeek jo dute; laukote, hirukote, boskote zein taldeka; eta zuzenean daukaten kalitatea frogatu behar izan dute. A.M. Big Band taldeak gaur iluntzean egin beharko duen gauza bera. Guztira 30 talde aurkeztu dira lehiaketara eta 16 izan dira hautaketarako aukeratu dituztenak. Jazzaldian 10 taldek joko dute Victoria Eugeniako Clubean, FNAC Forumen, Altxerrin eta Brankan, uztailean, jaialdiaren barruan.

A.M. Big Band 25 lagunek osatzen dute: sei saxofoi, bost tronboi, lau tronpeta, pianoa, baxu bi, bateria, perkusioa eta bi gitarra. Ahotsa, Amaia Arriaranek jartzen du. Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleek osatzen dute taldea. eta 2000 urtean sortu zuten; Jose Ramon Elkoro zuzendari zela eta, ostean, Iker Olazabal eta Zigor Martinez arduratu dira batutaz.

Jo eta entseatu bakarrik ez, diskoak ere grabatu dituzte: bi oraingoz. Lehena – zuzenekoa – 2005ean plazaratu zuten eta hurrengo urtean eskolan bertan diskoa grabatu zuten harizko talde eta guzti.

**'Txiliku' Aranguren eta Bea Zabalondo** > Ikus-entzunezkoen egokitzaileak

# "Aberastasuna ematen dio bikoizketak hizkuntzari"



Euskarazko bikoizketaz arduratu dira Aranguren eta Zabalondo. GOIENKARIA

**J. B.** > BERGARA

**Joan den astean estreinatu zuten 'Un poco de chocolate', 'SPrako tranbia' nobelan oinarritutako filma. Gazteleraz ikus daiteke momentuz baina aurki egongo da euskaraz ere. Bikoiztetaz arduratu dira Bea Zabalondo elgetarra eta 'Txiliku' Aranguren zarauztarra.**

**Ze alde dago egokitzaileen eta itzultzaileen lanen artean?**

Ikus-entzunezko itzulpengintza egiten dugu guk, ikuspuntu horretatik tratatzen dugu testua. Ez da literatura itzultzearen berdina. Gidoirako testua geneukan eta horren itzulpena, baina pertsonajeak testua hartzen duenean moldatu egiten du: pausekin, erritmo aldaketekin, offean esaldiak daude, barreak… Testua bera ere aldatu ohi dute aktoreek. Gauza horiek guztiak markatu behar ditu ikus-entzunezko itzultzaile batek. Ez du balio gidoian jartzen duenak, filmean geratu denak baizik; eta hori bikoiztu behar da.

**Pazientzia eta zehaztasun handiko lana beraz.**

Hainbat aldiz entzun beharra dago, poliki-poliki. Lehenengo entzun, gero esaldirik egokiena zein izan daitekeen pentsatu eta altuan dramatizatuta probatu, aktoreak ez garen arren.

**Egokitzapen onak egiten dira euskaraz?**

Lan onak egiten direla ez dago dudarik. Beste gauza bat da gutxi egiten dela ekoizpena erabat geratuta dago. Orain diru partida bat sortu da filmak itzultzeko. DVDtan euskaraz ere ateratzeko da. Hemen egiteko garrantzitsua daukana, nik uste, Euskal Telebista da.

**Sarri aurretik gazteleraz ikusita geneukan film bat euskaraz ikustean arraroa egiten zaigu. Ohitura ezarengatik gertatzen da hori?**

*Doraemon* edo *Shin Chan* euskaraz ikusi dituen gazte bati orain erderazkoa zer iruditzen zaion galdetzen badiozu, oso txarrak direla erantzungo dizu. Ez bagara produktuak euskaraz ikustera ohitzen, euskarazko guztia txarra edo arrotza irudituko zaigu.

**Eta edozein genero egoki daiteke euskarara?**

Euskaraz edozer itzul daiteke. Badaramatzagu ofizio honetan 25 urte pasatxo eta oso espezialistak gara gabiltzanok. Denetik egin da: kantuak, marrazki bizidun bereziak, film zaharrak, berriak; hizkuntza guztietatik, genero guztietan. Gauza bat da hizkuntza bat zenbaterainoko gai den eta beste bat zenbat ematen duen. Normalkuntzarako tresna da. Pentsatu atzerriko hizkuntzak ze ekarpen egin diezaiokeen euskarari. Hizkuntza berritu, modernizatu eta hiztegi berria ematen dio.

**"Normalkuntzarako tresna da bikoizketa. Hizkuntza berritu eta modernizatzen du"**

**"ETB ez da iristen hanka azpitik ere katalanez edo galizieraz bikoizten den ordu kopurura"**

**Beharbada, duen garrantzia ematen ez zaiolako ekoizten da horren gutxi.**

Baina hori erabaki politikoa da eta hizkuntza politikari dagokion erabaki oso garrantzitsua da hori. Hori da arazoa. ETB sortu zenean ekoizten ziren orduak eta gaur egungoak zerikusirik ez daukate. ETB ez da hanka azpitik ere katalanez edo galizieraz ematen den ordu kopurura.

**Hizkuntzaren arazoa ez da.**

Hizkuntza guztiak dituzte baliabideak eta are gehiago euskarak; gaztelaniak baino, adibidez. Sintaxi aldetik malgutasun handia dauka euskarak. Esaldia atzekoz aurrera eta goitik behera alda daitezke. Guri esatea ez gaudela euskaraz filmak ikustera ohituta, burla egitea da. 25 urte daramagu astean behin film bat atereaz.Gaur egun ohituta gaude *baseball* partidu bat euskaraz ikustera baina hori guk asmatu behar izan dugu eta berdin gerrako terminologiarekin, adibidez. Gazteen hizkuntza, zaharrena, edozein erregistrotakoa; hori dena eman behar izan da eta eman egin da. Gaur egun gauza asko normalak dira baina 25 urte ez dira alferrik joan. Bikoizketa bai, bikoizketa ez eztabaidatzen hastea inkultura da. Bikoizketa aberastasuna da eta zinema gizartearen aurretik doa.

JAIAK > PAZKOAK BERGARAN

# Eguaztenetik martitzenera Pazkoetan jai egiteko aukera

## Gauero dantzaldia izango da San Martin plazan eta kontzertua Bideberrin

*Astindu gerrixa, astindu herrixa* lemapean ekitaldi mordoa antolatu dute txosnetan




**BITORIANATXO** Egubakoitz iluntzean jaitsiko da Bitorianatxo udaletxeko balkoitik jaietarako baimena ematera. GOIENKARIA



**DANTZA** Gauero dantzaldiak izango dira San Martin plazan eta kontzertuak Bideberrin. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Aste bukaera atsedenerako hartzen du askok, baina datorren aste bukaeran horretarako aukera gutxi izango da Bergaran. Egubakoitz iluntzean hasiko dituzte herritarrek Pazkoetako ospakizunak eta martitzenera bitartean jai giroa izango da nagusi herrian. Esku zabalik hartuko dute plazan Bitorianatxo eta honek emango die baimena jaietan murgiltzeko.

Bandaren doinuei segika edo Zpeiz Mukakikoekin herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Txosnetara jotzen dutenek irekierarekin bat egingo dute baita barraketara joaten direnek ere.

*Astindu gerrixa, astindu herrixa* leloa aukeratu dute txosnetarako eta herria astintzeko ekintzarik ez da faltako. Egubakoitzean bertan Enboskada, Hesian eta Amaiur taldeekin kontzertua izango da Bideberrin. Gerria dantzatu nahi dutenek Drindotsen musika izango dute aukeran San Martin plazan.

### LEHIAKETAK AUKERAN

Zapatuan adin guztietako jendearendako ekintzak izango dira. Txikienak goizean marrazten jardungo dute; eta bestelako lehiaketak ere izango dira egunean barrena. Euskal Herriko Txarangen Bilgunea da aurtengo berrikuntzetariko bat. Txarangek bihar, maiatzaren 6ra, arteko epea dute izena emateko. Eta plazan txaranga doinuei kazuela hotsek hartuko diete lekukoa. Kazuela hotsa baina kazuelak ez hutsak, izan ere, bakailaoa egokien gertatzen jardungo dute herriko elkarteetako sukaldariek.

Txosnek Amnistiaren eguna izendatu dute zapatua eta *Euskal Herriak askatasuna behar du* lemapean hainbat ekintza izango dira: bazkaria txosnetan, Xabier Silveira, Sustrai Colina eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariekin eta trikitilariekin; preso, iheslari eta senideei omenaldia eta aldarrikapen kalejira.

Etxeko txikiendako arratsaldean musika izango da: rik, Txanogorritxu rock erromeria egongo baita plazan. Eta plazan dantzan jardun ostean, gerria dantzatu beharko dute errekortadore eskolan zezentxoek harrapa ez ditzaten. Gero erraldoi, kiliki eta buruhandiekin eta txarangekin kalejira.

Gauean, kontzertuak eta dantzaldia: Bideberrin Turboshit, Inoren ero ni eta Pikutara; plazan, Impekables eta La Güateke Band.

### GOIZEAN KIROLA

Domekan goizean goiz animatzen dena bigantxen aurrean ibiliko da salto eta korrika. Zezen plaza, gainera, txarangen bilguneko irabazlearen doinuek alaituko dute. Bestelako kirolik ere egongo da rgunean barrena: xake txapelketa, txirrindulari lasterketa, futbolina, ping-pong-a eta dardoak, baita bike trial erakustaldia ere.

Eguerdian jaietako ohiko kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak Espoloian. *Euskal festara*, *El pescador de perlas*, *Ballata della tromba*, *La granjera de Arles*, *Nostradamus* eta *Bergarako ereserkia* joko dituzte.

Arratsaldean musikari dantzak hartuko dio lekukoa. Simon Arrietan break dance ikuskizuna Samu Crew taldearen eskutik eta San Martin plazan Euskadiko dantza askatuko txapelketa.

Txosnetan independentzia gaitzat hartuta murala margotuko dute eta iluntzean Koloklown taldearen *Arratsalde paxa* antzerkia ikusteko aukera izango da.

Mulanbo perkusio taldeak eta Bergarako hankapaloek iluntzean bidea zabalduko dute gaueko kontzertuetarako: Belceblues, Olympic Darts, Adi Holden eta Mahaster River Bideberrin eta Arizgoiti San Martinen.

### KOADRILEN EGUNA

Jai batzordeak dei egin die herriko koadrilei blusa edo kamisetarekin kalera irteteko jaietan, herriari kolorea eta jai giroa emateko, bereziki astelehenean.

Koadrila giroan eguna pasatzeko nahikoa kontu izango da. Koadrilak elkartu eta patata tortillak egin eta jango dituzte lehenengo txosnetan. *Xapre* eta *Zarra* trikitilariekin kalejiran ibili ondoren herriko trontzalarien eta antxintxikalarien desafioa ikusteko aukera egongo da Muniben.

Dantza eta kirolean ibili ostean indarrak berritu behar direla eta herri bazkaria egingo dute San Martin plazan eta bazkalostea girotzeko euskaraokea eta koadrilen arteko jolasak.

Euskararen alde txotx egin eta jolasen ostean eztarria freskatzeko aukera egongo da txosnetan iluntzean.

Gauerako oraindik indarrik duenarendako dantzaldia izango da plazan Tapia eta Leturia trikitilariekin eta Jokin Otamendi dantzariarekin; Camp dantzaldia Tarantella taldearekin Espoloian; eta Bideberrin, kontzertua Lord Witch, Zea Mays eta Karelean taldeekin.

### UMEAK PROTAGONISTA

Gazteak eta helduak biharamuna pasatzen dauden bitartean, martitzena umeen eguna izango da. Kaleko giroa alaitzen Incansables txarangak jardungo du eta umeendako bereziki gertatutako ekintzak ere egongo dira: jolas parkea, antzerkia, dantzaldia eta txosnetan umeendako jolasak eta ipuin kontalariak, besteak beste.

Egubakoitzean hasi eta martitzenera, etortzen denak Bergara aldera, batean eta bestean izango du festarako aukera.

PAZKOAK GOIENKARIAN

## Zenbaki berezia martitzenean kalean

Goienkariak Pazkoak direla eta zenbaki berezia kaleratuko du bihar, martitzena. Aldizkaria banatuko da Bergaran, Antzuolan eta Elgetan, egubakoitzetan Goienkaria jasotzen duten harpidedunek jasoko dute zenbaki berezia etxeko postontzian.

Jaietako egitarauaz gain, besteak beste Pazkoetan herrian egongo diren ekitaldi esanguratsuenen gaineko informazioa jasotzen du zenbaki honek eta baita jaietako protagonistei egindako elkarrizketak ere.




Azalaren irudia. GOIENKARIA

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Maiatzaren 6an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Leire Lasanta, Lorea Berezibar, Mikel Agirre eta Uxue Ezpeleta
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Maite zaitut*



**NOIZ >** Maiatzaren 6an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Amaia Lasa, Ane Novoa eta Maite Oliden
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Narama*



**NOIZ >** Maiatzaren 6an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Ainhoa Mendizabal, Aitana Gomez, Ane Mendieta eta Ane Otxandiano
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 9 urte
**ABESTIA >** *Marea gora*



**NOIZ >** Maiatzaren 6an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Ane Zuazubiskar, Izar Carmona eta Izaro Uribarren
**HERRIA >** Arrasate
**URTEAK >** 10 urte
**ABESTIA >** *Iñaki*



**NOIZ >** Maiatzaren 6an
**ORDUA >** 20:15ean
**TALDEA >** Aitziber Iturriaga, Alex Astiazaran, Amaia Motoso eta Mikel Najera
**HERRIA >** Bergara
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Furra furra*



**NOIZ >** Maiatzaren 8an
**ORDUA >** 15:00etan
**TALDEA >** Alba Bolinaga, Garazi Marzo, Irene Jauregi eta Miren Gutierrez
**HERRIA >** Bergara
**URTEAK >** 8 urte
**ABESTIA >** *Maite zaitut*



**NOIZ >** Maiatzaren 8an
**ORDUA >** 15:00etan
**TALDEA >** June Nogueiras eta Maider Gago
**HERRIA >** Bergara
**URTEAK >** 9 urte
**ABESTIA >** *Amets bat*



**NOIZ >** Maiatzaren 8an
**ORDUA >** 15:00etan
**TALDEA >** Maika Gallastegi, Maite De Pedro, Martin Oteiza eta Tatiana Manecha
**HERRIA >** Bergara
**URTEAK >** 11 urte
**ABESTIA >** *Galdurikan nago*



**NOIZ >** Maiatzaren 8an
**ORDUA >** 15:00etan
**TALDEA >** Aitziber Yera, Amaia Uriarte eta Izar Morillas
**HERRIA >** Bergara
**URTEAK >** 11 urte
**ABESTIA >** *Festarik festa*



**NOIZ >** Maiatzaren 8an
**ORDUA >** 15:00etan
**TALDEA >** Ainhoa Murgizu, Garazi Zubizarreta eta Miren Gonzalez
**HERRIA >** Bergara
**URTEAK >** 10 urte
**ABESTIA >** *Arratsalde honetan*

ASTEBURUA...

## Maite Aristegirekin



**ATSEDENA** Denborarik geratzen bazaio – eta ez da sarri gertatzen den gauza –, atseden hartzeko aprobetxatzen du Maitek asteburua. JON BEREZIBAR

# "Lanak eta konpromisoek lagaz gero, inguruetatik paseatzea gustatzen zait"

Aste bukaera eta lanegunak bat dira Maite Aristegirentzat, nekazal etxeko lanekin eta konpromisoz beteta du egunerokoa

Tartetxo bat izanez gero, alabekin paseatzeko aprobetxatzen du

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Lamaño-Etxeberrin egina geneukan hitzordua. Bergarako paraje eder hartara iritsi bezain laster Maitek berak aitortu digu aisialdiari buruzko elkarrizketa bat egiteko pertsonarik aproposena agian ez dela bera. Bagenekien guk hori. Hamaika leku eta ekimenetan ikusi ohi dugu bere aurpegia eta makina bat konpromiso dauzka; falta zaiona denbora da. "Ezetz esaten ez dakien pertsona naiz", dio berak. Hori ere bagenekien eta, hortaz, gure proposamenarekin ere ez du salbuespenik egin. Irribarre zabalarekin hartu eta baserriko atarian egin diogu galdetegia.

Nekazal-etxeak asteburuetan ez du atseden hartzeko aukerarik ematen. Bisitariei harrera egin, haien premiei erantzun eta etxeko lanak nahikoa dira berez egun osoan lanpetuta egoteko. "Hala ere, noizean behin, badaude asteburuak jenderik ez daukaguna" azaltzen du. Eta orduan? Barre egin eta erantzuten digu orduan ere baserriak berak nahikoa lan ematen duela. Aitzakia gutxi, beraz, belardian botata egoteko. Horri ere, baina, alde ona ikusten badaki Maitek ze, azaltzen duenez, "giro ona dagoenean, adibidez, hemen kanpoan arropak eskegitzen gustura" ibiltzen da. Inguru benetan ederra daukate Lamaño-Etxeberrin. Arropak eskegitzea, ortura joatea edo arrautzak batzera, gustura joaten da, lanak txandatuz. "Kalean gora eta behera ibiltzera ez nago ohituta, arraroa egiten zait" dio, "baina kanpora joatea, beste paraje batzuk ezagutzera joatea, gustatzen zait. Baina orain, zaila da, etxearekin eta umeekin; eta lan hau gainera, oso lotua da".

### KONPROMISOAK ERE MAKINA BAT

"Eta etxeko kontuak tokatzen ez direnean, ba, bestelakoak tokatzen dira, politikoak-edo", jarraitzen du Maitek. Azkenaldian, *18/98 eta gehiago* plataforman, Euskal Unibertsitatearen alde edota Nazio Eztabaidagunean ikusi dugu, batzuk aipatzearren. "Borondatezko lan" moduan ulertzen ditu berak, baina horiek ere asteburuetan egokitu ohi dira sarri. "Ailegatu ezinda ibiltzen naiz" dio berak. Hala ere, "asteburuak alabekin gehiago egoteko ere onak dira". Dioenez, domeka arratsaldeetan izaten du tarte gehien alabekin egon edo irakurtzeko.

Tankera honetako elkarrizketetan ia nahitaezkoa izaten da zaletasunez galdetzea eta horren aurrean ere denbora falta da erantzuna. "Nire afizioak aitatutako borondatezko lan horiek dira; denbora libreko nire ekintzak dira horiek. Beti esaten dut gauza bera: biziorik izateko denborarik ere ez daukat!". Paseatzea edo igerilekura joatea gustatzen zaio. "Hala ere", gehitzen du, "hemen bizitzeak badauka abantaila bat, eta da edozein unetan irten zaitezkeela bueltatxo bat ematera edo haizea hartzera". Ez da gutxi, txoko lasaitxo bat izatea, hainbeste ardura eta konpromisoren artean, apur batez bada ere, arnasa hartzeko.

### "Ahal dudan apur hori ematea gustatzen zait: familiari, lagunei edo herriari"

Orain denbora gutxiago daukala azaltzen du Maitek eta ohitura edo afizio finkorik ez ei dauka. "Lehen beti joaten ginen San Martzialgo bueltatxoa egitera, baina aspaldian zeharo lagata daukagu". Aisialdi aldetik ez dauka astebururik eta "oporrak ere justu". "Nekazal etxea inbertsio handia da eta arreta asko eskatzen du", lotura handia da beraz, baina dioenez, "gustatzen bazaizu lan polita da". Azaltzen duenez, "baserri munduan geroago eta gehiago daude ordezkapen zerbitzuak eta jai hartzeko edo irteteko aukera gehiago dago. Ni orain fase baten nago, umeak oraindik txikiak dira, etxean laguntza handia behar da, eta orain sekula baino denbora gutxiago daukat". Tartetxo bat libre duenean inguruan paseotxo bat edo umeekin bizikletak hartu eta osteratxo bat egin ohi du Maitek. "Ahal dudan apur hori ematea gustatzen zait: familiari, lagunei edo herriari. Ez dut ezetz esaten".

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA + ASTELEHENEKO GOIENKARIAN 17 € ASTEBETE (BEZ BARNE).

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).

OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikular zein profesionaletan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metro koadroko duplexa salgai Zurrategi plazan. Bi logela eta bi komun (bat leihoarekin). Eguzkitsua eta balkoiarekin. Sarrera bi solairuetatik. Garaje itxia. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 943 76 65 03 edo 656 73 25 99.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 659 64 67 38.

**Bergara.** Labegaraietan 50 metro koadroko etxebizitza. Berritua eta erdi jantzia. Berogailu eta hidromasajea. Dena kanpoaldera begira. Penintsula sukalde irekia, egongelarekin. Bi logela eta despentsa txikia. 28.800.000pta. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 635 71 04 55.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Peñiscola (Castello).** Apartamentua errentan hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea hartu nahi dugu errentan. Bikote arduratsua gara. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 669 12 25 63.

**Arrasate.** Urtebeteko umea daukan bikote batek etxea errentan hartuko luke. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 610 67 12 22.

**Bergara.** Etxea hartu nahi dut errentan. 648 13 35 62.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Oñatin bada hobe. Etxe txikia nahiago. 652 71 21 23.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 699 28 99 06.

**Aretxabaleta.** Lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan –bereziki Arrasaten– logela alokatu nahi nuke. Hasiera baten, urtebeterako. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara:653 74 28 83.

**Arrasate.** Gela bat alokatzen da erdialdean, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Abuztuaren bukaera arte bakarrik. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 630 71 35 83.

**Bergara.** Erdialdean (Izizar pasealekuan) gela txikia errentan ematen da. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara:649 63 23 24.

**Gasteiz.** Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara:652 72 18 87.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara eta Arrasate.** Jardunean dagoen taberna bat alokairuan hartuko nuke. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 697 20 78 24.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da astean behin etxea garbitzeko. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 943 79 41 15.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta** edo Arrasaten garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 646 50 83 59.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 667 87 99 16.

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu atariak eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 663 04 53 99.

**Bergara** edo Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak egunez edo gauez zaintzeko eta baita garbitasun lanak egiteko ere. Paperak dauzkat. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara** edo Arrasate. Neska gertu ekainean eta uztailean haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Gizarte Integrazioa ikasten ari naiz. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 636 01 60 15.

**Bergara.** Emakume bat gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakumea garbiketa lanak zein haur edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 627 03 16 40.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara:664 12 43 25.

**Bergara.** Paperak dituen emakumea haur zein nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. Deitu telefono honetara: 686 99 59 41.

**Bergara.** Paperak eguneratuta dituen emakumea lan bila dabil. Garbiketa lanetan, zerbitzari edo sukaldeko laguntzaile. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 663 15 39 92.

**Debagoiena.** Adinekoak zaintzeko emakumea gertu. Orduka, egun osoz edo gauez. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 678 80 96 01.

**Debagoiena.** Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Ekuadorko emakume arduratsua etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan lo egiteko prest. Paperak ditut. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 688 68 06 96.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Debagoiena.** Emakumea etxean lan eta lo egiteko prest. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 669 33 65 54.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 618 94 19 93.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 615 76 30 62.

**Debagoiena.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsaldez haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok Leiregatik galdetu. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 699 74 98 13.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 622 81 53 31.

**Debagoiena.** Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lanetarako prest. Aaron. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 622 84 08 86.

**Debagoiena.** Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 656 66 49 75.

**Debagoiena.** Mutil gaztea pertsona nagusiak edo atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Paperak ditu. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Debagoiena.** Neska arduratsua garbiketa lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest. 661 06 07 23.

**Debagoiena.** Neska gertu haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Esperientzia eta lan egiteko gogoa.

Irakasle ikasketak egiten ari naiz. 669 61 97 71.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Emakumea** prest pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko, baita etxeko lanak egin edo garbiketak egiteko. 686 99 59 41.

**Mutil gaztea** informatika, auto mekanika, txapa eta pintura, elektrizista edo igeltsero ezagutzekin edozein lanetarako prest. 697 66 79 37.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Debagoiena.** Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. 645 72 25 24.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa eta DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Debagoiena.** Mutila matematika eskolak emateko gertu. Maila guztiak, Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. 696 38 10 07.

**Eskola partikularrak** ematen ditut. Ekaina eta uztailean, Lehen Hezkuntzako umeei. Interesatuek deitu zenbaki hauetara:. 650 23 34 98 edo 943 03 76 04.

## 6/ MOTORRA

### 603. ALOKATU

**Autokarabana** hartuko nuke errentan abuztuan. Lau pertsonarendako modukoa gutxienez. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 677 98 54 91.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. Hiru hektareako zarratua basurdeekin, txakurrei erakusteko. 200 euro. 678 72 75 72.

**Txakurkumeak.** Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. 677 05 39 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Apalategi** metalikoak salgai. 100x60 neurrikoak. Deitu telefono honetara:. 943 76 11 21.

**Autoan** umeak eramateko segurtasun aulkia salgai. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 656 78 64 64.

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 678 72 75 72.

**Bizikleta.** MTB-Pagotxa!! 750 euro! Estreinatu gabeko bizikleta S-Crash markakoa: Esekidura bikoitza, atzean eta aurrean"Rock-Shox", Shimano-XT 2007, disko-balazta Magura Julie hidraulikoa. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 652 73 83 25.

**Bizikleta** berria salgai. Erabili gabea. Parrilla eta saskia dauzka. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 655 74 48 85.

**Carry-Bike** salgai, 4x4 autoetan bizikletak eramatekoa. Bi bizikletarendako. 50 euro. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 679 10 95 23.

**Erlojua.** Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

**Garajerako atea** salgai. Erabili gabea. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 m. Gaineko finkoa: 0,50 m. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

**Jaunartzea** egiteko marradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

**Karro-denda** salgai, sukaldedenda independentearekin. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako. Osagarri ugari. Egoera onean, beti garajean gordeta. Prezioa: 1.600 euro. 615 72 47 43.

**Mahai** obalatua salgai. 136 x 90 neurrikoa. Luzagarriekin. Asier. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 617 17 15 88.

**Marshall 800** anplifikadorea salgai. 100 watt. Balbulekin. 800 euro. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 630 60 90 53.

**Olympus E-410** argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 milimetroko eta 40-150 milimetroko objektiboekin. Bateria eta kargadorea. USB eta bideo kableak. Olympus Master 2 Software CD-ROMa. Erabili gabe dago. 650 euro. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 660 80 09 71.

**PSP Slim** bideojoko berria salgai. 8 GB-ko memoria eta eramateko poltsarekin. 250 euro. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 665 74 91 28.

**PlayStation I** salgai. Erabili gabea. Bi aginte tresnarekin. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 945 44 52 96.

**Teleskopioa** daukat salgai. Astrolon markakoa. 402 potentzia. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 656 78 64 64.

**Txakurkumeak.** Ispanier arrazako txakurkumeak salgai. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 664 46 06 45.

**Zigiluak.** 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 657 10 90 78.

### 802. EROSI

**Bizikleta estatikoa** erosi nahi dut. 619 88 26 84.

**Lursaila.** Autokarabana bertan uzteko lursaila edo kanpineko partzela erosiko nuke. 600 08 27 89.

### 804. HARTU

**Hozkailu** zahar bat hartuko nuke. 943 79 66 00.

### 806. GALDU

**Betaurrekoak** galdu nituen martxoaren 29an Arrasaten. Pastarik ez dute eta oso arinak dira. 659 36 88 75.

**Diru-zorroa** galdu dut Bergaran. Pantera Arrosaren marrazkia dauka kanpoan. Barruan pendrivea dauka. 685 72 90 04.

**Erlojua** galdu dut Loramendi Kirolak eta Super BM artean. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. 630 75 44 19.

**Haur manta** polar bat galdu nuen igandean Bergaran. Horia eta letra eta zenbakiekin. 678 00 08 43.

**Patin motxila** gris eta beltza galdu dut Bergaran. Barruan neskatila zapatak dauzka. Aurkitu baduzu, dei egidazu. 943 76 07 89.

### 807. AURKITU

**Paparrekoa.** Bergarako Artekale kalean urre koloreko paparrekoa aurkitu dute. Paparrekoak erdian harri zuri bat dauka. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara:943 76 13 86.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate eta Iruñea** arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igandeetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara:635 75 94 57.

**Oñati eta Bilbo.** Oñati (edo inguruko herriak) eta Leioako unibertsitate arteko eguneroko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil datorren urteari begira. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 670 52 58 79.

**Perkusionista.** Musika talde baterako perkusionista behar da grabazioetan eta zuzeneko emanaldietan jotzeko. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 656 30 97 48.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Taldekide bila** Bergarako Emon taldea, taldea guztiz osatzeko tronboi eta tronpeta bila dabil. Deitu telefono honetara: 675 70 81 93

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

**Zorionak irabazleoi!**

Gaur, maiatzak 5, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**SKUN FUNK markako 2 kamiseta eta 2 poltsa**
- MERTXE SANZ BENGOA (Arrasate)
- AMAIA LAZKANO GARCIA (Antzuola)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
38 euro
2008ko urteko kuota

Goienkaria
asteleheenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 5



**> MU saskibaloi taldearen partidua 'Harmailatik'-en**
**21:15**

Atzo MU saskibaloi taldeak Urdanetaren aurka Iturripen jokatutako partiduaren nondik norakoak eskainiko dituzte gaur *Harmailatik* saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea-Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
14:45 Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Berbaire.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ikusten.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Animalia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Harmailatik.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmailatik.
**22:47** Erreportajea.
**22:45** Berriak.
**23:15** Kirolari.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 6



**> Huhezinema film laburren lehiaketa Goiena Telebistan**
**22:15**

Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko laugarren mailako ikasleek antolatutako lehiaketan jasotako zortzi film ikusi eta bozkatzeko aukera.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Animalia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa.
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Huhezinema.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 7



**> 'Euskal artzainak Ameriketan' saioa**
**21:47**

Euskal Herritik joandako artzainen gaineko beste erreportaje saio bat eskainiko dute gaur. Oraingoan, Eizagirre familia ezagutzeko aukera izango duzue.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Euskaldunok hizketan.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Animalia.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Ikusten.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Euskal artzainak ameriketan.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Teknopolis.
**23:45** Gaurkoak.
**23.47** Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 8

**> Arrasateko lau talderen txanda 'Kantari' saioan**
**20:15**

Zortzi eta hamar urte bitarteko Arrasateko lau talderen txanda da eguen honetan *Kantari* saioan. Albistegien ostean hasiko da saioa.

**08:00** Emisio hasiera.
**08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron.
**11:00** Kantari.
**12:00** Ur eta lur.
**12:30** Berbaire.
**13:00** Euskal artazainak.
**13:30** Euskaldunak hizketan.
**14:00** Erreportajea.
**14:30** Ikusmira.
**15:00** Animalia.
**15:30** 28 klip.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**19:00** Jazz gauak.
**19:30** Eltze beroa.
**20:00** Ur eta lur.
**20:30** Erreportajea ttipì ttapa.
**21:00** Musikantoi.
**21:30** Animalia.
**22:00** Astekoak.
**22:15** Gertutik.
**22:45** Erreportajea.
**23:15** Teknopolis.
**23:45** Ilunpean.
**00:15** Musikantoi.
**00:30** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 9



**> Landare-sikuen lokalaren gaineko erreportajea**
**23:45**

Jose Antonio Aperribairen landare-sikuen gaineko erreportajea gaur GOITBn. Aperribaik landareei buruzko azalpenak emango dizkigu.

**08:00** Emisio hasiera.
**08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron.
**11:00** Ikusmira.
**11:30** Ikusten.
**12:00** Astekoak.
**12:15** Klip.
**12:30** Gertutik.
**13:00** Eltze beroa.
**13:30** Erreportajea.
**14:00** Gertutik.
**14:30** Errepor-ttipi ttapa.
**15:00** Kantari.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**19:00** Euskaldunok hizketan.
**19:30** Ikusten.
**20:00** Ur eta lur.
**20:30** Eltze beroa.
**21:30** Erreportajea ttipi ttapa.
**22:00** Erreportajea.
**22:30** Ilunpean.
**23:00** Musikantoi.
**23:30** Jazmina.
**00:00** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**>Gore Gore Girls eta Foxxi Boxxi ikusteko sarrerak irratian**
**10:30**

Gore Gore Girls eta Foxxi Boxxi taldeak ikusteko sarrerak zozketatuko dituzte. Horrez gain, Victor Aneiros blues-jazz musikari galiziarraren azkenengo diskoa ere zozketatuko dute, 943 25 05 05 telefonoan.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua. Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; Oihuka diskoetxeko sortzaile izandako Ritxi Aizpuru; *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## gertutik



Ilaski Serrano
kazetaria eta aurkezlea

# "Euskalkiek euskara aberasten dutela defenditu izan dut"

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

**32 urteko bermeotarra, aski ezaguna da Euskal Herrian, Gaztean lehenik eta gero ra ETBn egindako lanagatik. Kazetaria da eta egun Antropologia ikasten dihardu; ikasketak, *Mihiluze* saioko aurkezle lanarekin uztartzen ditu.**

**Betidanik izan dituzu gustuko komunikabideak?**

Beti gustatu izan zait; kontsumitzaile moduan ere bai, betidanik asko entzun dut irratia, egunkaria ere asko irakurri dut eta telebista ere asko gustatu izan zait. Gauza batek bestea dakar, eta kazetaritza egin gura izan nuen gauzak kontatu ahal izateko.

**Telebistan ongi pasatzen duzula dirudi...**

Urte zoragarria bizitzen ari naiz. *Mihiluze* hasi zenetik oso gustura nago. Egia esan, telebistan egin ditudan saioetatik gusturen egiten dudana da. Gehien sinisten dudan saioa da, bertako parte sentitzen naizelako. Orain arte saio batzuetan ez naiz bertako sentitu; gauza batzuekin ados egon zaitezke, beste batzuekin ez, baina hor zaude, eta zure lana da. Baina orain oso gustura nago.

**Arrakasta handia du *Mihiluze* saioak, Katalunian ere formatua hartu dute eredu...**

Hurbilekoa delako uste dut. Gurea dela sentitzen dugu, gure gauzekin jokatzen du; azken batean bertso bat ikusten dugu, edota mezu bat euskaraz idatzita. Etxeko sentitzen dugu. Ez du ikuslea erasotzen, beste formatu batzuek egiten duten moduan. Giro oso ona dago, eta hori helarazi egiten da.

**Herriko euskalkian berba egiten duen Euskal Herriko kazetari bakarrenetako zara. Euskalkien aldarrikatzaile zara?**

Horretan ari naiz, eta askotan aurkezle nagusi izanda ez da erraza, azkenean Euskal Herri guztian ulertu behar zaituzte. Uste dut, nire euskalki ulergarrian berba egiten dudala. Belarria eginda daukat; bermeotarra naiz, Bilbon bizi izan naiz, Donostian lana egin dut beti eta orain Nafarroako mendi batetan bizi naiz, eta badakit zer berba ulertzen den eta zer ez. Beti defenditu izan dut aberastu egiten duela euskara euskalkiek, baina eredu ulergarri baten aldekoa naiz.

## asteko hitzorduak

### Aurkezpena



OÑATI

**> Jose Antonio Azpiazuk 'La empresa vasca de Terranova' aurkeztuko du**

Jose Antonio Azpiazu historialariak bere liburu berria, *La empresa vasca de Terranova* (Ttarttalo), aurkeztuko du etzi, eguaztena, Oñatiko kultura etxean, 19:00etan. Mitoa eta errealitatea banantzen ditu liburuak.

### Ospakizuna



ARRASATE

**> Txokolate-jana, afaria, musika... Corazon de Encinaren kultura astean**

Corazon de Encina elkarteak txokolate-jana antolatu du eguenerako (19:00); egubakoitzerako, saiheski-jana (21:00) eta flamenko ikuskizuna (23:30); zapatuan, folklore eta musika saioak (18:15) eta afaria (21:45) izango dituzte.

### Zinema



ELGETA

**> Fikzioa eta dokumentala batzen dituen 'El taxista ful' emango dute**

*El taxista ful* (Espainia, 2005) filma fikzioa eta dokumentala uztartzen ditu. Jose R. taxilariaren bidez, Bartzelonako gizarte eragileen lana eta giroa erretratatzen dizkigu filmak. Etzi, eguaztena, Espaloian, 21:30ean.

kuxkuxeroa



Julen Iriondo

# Garzonen aginduz, M-1ean lan

Langileon Nazioarteko Eguna zela ere konturatu gabe. Horrela pasatu zait oraingoan maiatzaren 1a. Bestela ere, egutegiz, tokatu egiten zitzaigun, baina Madrildik iritsitako notiziek lan gehiago eman digute. Dena dela, guri eragiten digun lanak ez du inportantziarik. Egoera bera da kezkagarria. M-6tik m-6ra gauza asko gertatu dira Arrasaten.

Kontuak kontu, batzuk aprobetxatu dute zubia bidaiatzeko. Hemendik kanpora joan direnen berririk ez dut, baina kanpotik hona etorri diren batzuen gainean zerbait esango dizuet.

**"Turista bat ikusi dut Oñatin frakak jaso eta oinak uretan errekan ibilaldia egiten"**

Egubakoitz eguerdian Oñatiko unibertsitate paretik pasatu eta hura zen jende pila. Kataluniar batzuei esan nien eguraldiaz behintzat ez zutela kexu askorik izango, eta galdetu orduko sartu zitzaidan zalantza: baina ez, euria han behar dute haiek, eta hemen egiteak ez lieke askorako balio; eguzkiarekin gustura zeudela esan zidaten.

Eta halako baten han ikusi dut gizon bat, unibertsitate parean, hankak errekako uretan sartuta. Beroak ezin agoantatuta, pentsatu nuen. Ezta ere, telefonoaren karkasa erori zitzaion eta haren bila joan zen. Pena gure kamera grabatzen zela irrist egin eta bainua hartu ez izana: garaiotan barre apur bat egitea ere...



**Gitarra elektriko berria.** Kai tabernan gitarra eta anplifikadore baten zozketa egin dute eta dagoeneko badute jabea instrumentuek. Irabazlea Bittor Poza Muñoz gaztea izan da.Kai tabernakoek zorionak eta rock-and-roll asko opa diote Bittorri. 16. zenbakidun txartela izan da irabazlea, ONCEko egubakoitzeko zenbakia izan da saritua zozketan.



**Denda berria zabaldu dute Ogizun okindegikoek Bergaran.** Ibargarai kaleko 17 zenbakian zabaldu zuten eguaztenen Ogizunekoek denda berria Bergaran. Lantegia Oñatin daukate (Zubillagan) eta okindegia (denda) Bergaran. Lehena, orain dela zortzi urte zabaldu zuten Ibargain eta orain berria estreinatu dute, kale berean. Lagunekin eta senideekin, otordu txiki bat eginez ireki zuten lehen aldiz denda berria eguaztenean. Bergaraz gain, Oñatiko Magdalenako gasolindegian ere eros daitezke Ogizun okindegiko produktuak.



**Elkarte berria Asentzion.** Atzo inauguratu zuten Oñatiko Asentzio auzoko elkarte berria. Murgia auzoko parroko Sabino Zuazabeitiak bedeinkatu zuen txokoa. Lehen, meza entzun zuten auzotarrek eta mezatan parrokiako abesbatzak abestu zuen. Ostean etorri zen bedeinkapena eta trikilari eta hamaiketaren txanda azkenik.



**Josalez blai!.** Herriko txikienendako *Larunblai* jaialdia antolatu zuten Txatxilipurdikoek Arrasaten. Seber Altube plazan egin zuten egubakoitz arratsaldean hitzordua. Ez zuten aspertzeko astirik izan etxeko gaztetxoenek. Aukeran izan zituzten eskulan tailerrak, jolasak eta beste makina bat entretenimendu. Jolastuz eta, gainera, euskara sustatuz, igaro zuten arratsaldea.

**Punk jaialdia.** Maiatzeko zubian kontzertu faltarik ez da egon Arrasaten eta gutxiago punk estilokoak. Eguenean El Doghouse eta konpainia izan genituen 3.60-n eta egubakoitzean The Sewer Rats-i tokatu zitzaion txanda. Alemaniako The Sewer Rats punk-pop taldeak *Rat Attack* disko berria aurkeztu du Arrasaten. Europa osoan barrena dabiltza bira egiten eta gurean ere geldialditxoa egin dute. Ez ziren oholtza gainera igo zitren bakarrak izan. Hain zuzen, eurekin batera jo zuten Arrasateko Aggressive Combat eta Material Rechazado taldeek.



ESKELA

**Alberto Etxabe Lete**

*Urak dakarrena urak daroa*
*zuk emandakoa gurekin gelditzen da*

Hire koadrila.
Eskoriatzan, 2008ko maiatzaren 5ean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
**Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio:** Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**



## Zorion Agurrak


ESKORIATZA
**Garbiñe Beitia**
Maiatzaren 10ean, urtebetetzea. Bota irrintzixe! Gure erle finari zorionak beste "panaleko" erlamandoeen partetik! .


OÑATI
**Txomin Madina**
Maiatzaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak politikarik gabeko lurralde izkututik gure erreportari finari! Aupa Dolly!


OÑATI
**Miren Arregi**
Maiatzaren 4an, urtebetetzea. Ganbaratik jaitsi eta egun batez formala izateko ahalegina egin! Kroasanak danontzat!


OÑATI
**Mikel Saiz**
Maiatzaren 8an, urtebetetzea. Zorionak txantxi! Lo nahikoa egin duzu? Ze hemendik aurrera "gaupasa" ederrak egin beharko dituzu!


ANTZUOLA
**Josune Peñagarikano**
Maiatzaren 1ean urtebetetzea. Zubitik bueltan, bertso bat botako doskuzu? Zorionak!


DURANGO
**Oihane Isasi**
Maiatzaren 5ean, urtebetetzea. Goienako sirena eta laurden! Zorionak eta patxo bat lankide bakoitzak!


ARRASATE
**Sergio Azkarate**
Apirilaren 24an, urtebetetzea. Bizikleta ahaztuta ala? Zorionak lankidion partetik, xuxen!


BERGARA
**Endika Ibaibarriaga Bengoa**
Maiatzaren 2an, lau urte. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki Ziortza, Iker eta Josuren partetik!


BERGARA
**Aiago Altuna**
Maiatzaren 4an, urtebetetzea. Zorionak guapisima! Egun on ona pasau ta patxito asko! Lagunak.


BERGARA
**Juanjo Benitez**
Maiatzaren 4an, zorionak! Ondo pasa zure urtebetetze egunean eta ea behar bezala ospatzen dugun. Zure lagunak.


BERGARA
**Juan Karlos Gomez Arevalo**
Maiatzaren 4an, urtebetetzea. Zorionak aitatxo eta muxu haundi bat Josune, Goiuri eta Idoiaren partetik.


BERGARA
**Soiartze Heras**
Maiatzaren 6an, 22 urte. Zorionak gurasoek eta lagun min Amaiaren partetik.


BERGARA
**Gorka Ibarra Guridi**
Maiatzaren 6an, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki Joneren partetik.


BERGARA
**Ane Bretaña**
Maiatzaren 7an, 5 urte. Zorionak etxekoen partetik.


BERGARA
**Maider Gorosabel**
Maiatzaren 5ean, 7 urte. Zorionak sorgintxo! Julen, Maiara eta Asierren partetik.

ZORIONAK!

Zorion itzazu
lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAren bidez!

BABESLEA





Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-05-05

**Asier Hormaza** > Aktorea

# "Udalekuetan hasi nintzen antzerkiarekin"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Asier Hormaza getxotarra aurpegi oso ezaguna da ETBn eta antzokietan. Hasiera baten, paper komikoak egiten aritu zen, baina dramatikoak ere gero eta gehiago egiten ditu. Athleticzale amorratua da, eta lagunekin futbolean jokatzen du.**

**Bada oraindik *Muso* deitzen zaituenik?**

(Barre) Nonbaiten udalekuetako jendearekin topo egiten dudanean hala esaten didate. Abaigarren 16 urtetik 24ra bitartean ibili nintzen, lehenengo ume eta gero begirale moduan. *Muso* edo *Mussolini* goitizena Bernedon jarri zidaten, tanke eta halakoekin ibiltzen nintzelako, ez autoritarioa nintzelako.

**Umetan futbolari izan gura zenuen?**

Ez, aita futbolaria zen, baina nik ez neukan argi zer izan gura nuen. Hala ere, beti jokatu dut futbolean eta oraindik ere astero batzen naiz lagunekin jokatzeko. Nik baloia igo eta paseak egiten ditut, baina oso gol gutxi sartzen ditut.

**Noiz *harrapatu* zintuen antzerkiak?**

Egia esanda, eragin handia izan zuen udalekuetan ibiltzeak eta han antzerkia egiteak. Neuk asko gozatzen nuen, eta jende artean hain erantzun ona izateak animatu ninduen. Hala, Getxoko Antzerki Eskolan izena eman nuen.

**Athletic Bizkaiko gauza onena da?**

Ni Athleticzale amorratua naiz, bai, baina Bizkaiak gauza on asko ditu, ugari. Egia esanda, ez dut Bizkaiko futbolzalerik ezagutzen Bizkaian Athleticzalea ez dena.

**Aktore lanaz gain, *Pilotari* telesailean kamara atzean ikusi zintugun. Eroso?**

Bi astetan aktore-zuzendari lana egiteko eskaintza egin zidaten, eta gustura ibili nintzen, baina beste batzuk esan beharko dute. Udalekuetan egiten genituen antzezlanetan neu nintzen zuzendaria.

**Erronka handia izan zen Kanpingags sortzea?**

Pauso garrantzitsua eman genuen Euskal Herrian halako enpresa bat sortzeko. Une onak eta txarrak bizi izan ditugu.

**Euskal aktoreek ez dute errebindikaziorik egiten?**

Bai, baina indibidualki. Kontua da ez daukagula talde kontzientziarik. Gutxi gara, eta bakoitza bere kasa gabiltza. Hori guztia dinamika edo industria ez egotearen ondorio da. Baina, hemengo aktoreek egiten duten lana mirestekoa da.

TEST-A

**Herria:** Getxo. **Adina:** 38 urte. **Ikasketak:** Publizitatea, bikoizketa eta antzerkia. **Zaletasunak:** Mendia, bidaiatzea eta bideo jokoak. **Zer amets bete duzu?** Aktore izatea. Nire bizitza ametsez beteta dago. Sinisten dut ametsak bete daitezkeela, eskuragarriak direnak. **Gogoan daukazun bidaia bat?** Jamaikan ederto pasatu nuen. **Zenbat seme-alaba izango zenituzke?** Hiru zenbaki polita da, bakarra behintzat ez.



**ANTZERKIA** Antzerkian eta telebistan lan asko egiten du Hormazak. EITB

## ai, ene!



### Alergia dutenendako

Udaberria iristearekin batera alergiarekin arazoak izaten dituztenek pozik jasoko dute asmakizun honen berri. Iragazki edo filtro txikiak dira, sudurzuloetan sartzen direnak. Hori bai, argi dominstiku egiterakoan, badaezpada.

http://www.nopuedocreer.com

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Marmotaren eguna

Jose Maria Ruiz Soroa abokatuari irakurri nion zapatuan Correon "Auzitegi Nazionalean egunotan ematen ari den justizia moldea itxuragabekeria juridikotik gertu" dagoela eta "oraindik zuzenbide estatuan sinesten dugunok lotsarazten gaituela". Berak **Valle-Inclan**en esperpentoari egiten zion erreferentzia **Ino Galparsoro**ren espetxeratzea definitzeko. Izan ere, eta zoritxarrez, ZPk hauteskundeak irabazi zituenetik jada ez dauka inork itxurakerietan ibili beharrik; ezta **Garzon**ek berak ere. Ez dakit honezkero gartzonkeria guztiak gainditu dituen erabaki horrek **Playa de Bakio**ko arrantzaleek izan duten moduko amaiera zoriontsua izango duen; hala espero beharko genuke, baina ez dago bada egoera etxafuegoak botatzeko moduan. Sikeran zapatuan Arrasaten Inoren askatasuna eskatzeko egin zen manifestazioa ez zuen **Balzak** oztopatu, **San Gil**en alderdiak hori eskatu bazion ere. **Bill Murray** protagonista zuen *El día de la marmota* filmean bezala, gu ere behin eta berriz egoera berberak bizitzen ari gara. 35 urte egin nituen joan zen astean eta kontzientzia dudanetik ezer gutxi aldatu da politika giroa; ni hasi berria naizela kontuan izanda, zer pentsatuko dute eskarmentua dutenek! Hemendik besarkada bat **Ino**.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +20 | +11 |

Hodeitsu hasiko da eguna, eta tarteka euria ere egingo du. Arrasalderako atertu eta ostarteak zabalduko dira. Haizea iparretik.

www.euskalmet.net

